



Gitarrarekin arteak egiten

BIODIBERTSITATEA
BIZIAREN ETORKIZUNA

ERAKUSKETA

2017.10.20 - 2017.12.10



Bisita gidatuak familia eta helduentzat

www.laboratorium.eus

Laboratorium museoa, Juan Irazabal Pasealekua, 1. Bergara. 943 76 90 03



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,
Periodontzian, inplantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Autran Institutoa. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Familiaren Osasuna

**Zure familiaren ahoaren
osasunaz arduratzen garelako**

Gutaz fidatu eta jarraiiezaguzu

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal **t Twitteren:** @Clinicalrazabal



FINANTZIAZIO BEREZIA. Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario ezin hobeak. **GALDETU**



IRAZABAL
clínica dental

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:
Maialen Belaustegi
eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:
Andrea Gonzalez Caballero

BANAKETA-ARDURADUNA:
Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.150 ale.

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(“...eta kitto!”k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

Eskutitzak

– OHARRA –

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luze hori gaintzen duten testuak mozteko esku-bidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu irain-

garririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzak bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartera), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

Erredakzioa

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MAGAL.- Altzo. “Magalian txakurkume bi eukazan”.

Mendi hegala. “Urkoren magalian Aritxulueta basarrixa”.

MAHAIKO EGIN.- Mahaian partaide izan, bai jateko, bai epaitzeko. “Dukiaren mahaixan, gehixenetan zaldun igeskorra mahaiko izaten zan”. “Umiok eta mahaiko egiten ebenak hotzez dardaraka pasau eben arratsalde guztia”.

astean esanak

“AEB-etan badira enpresak euren beharginak sare sozialetan dituzten aktibitatearen arabera sailkatzen dituztenak. Eta Txinan ere abian dute ‘giza-kreditua’ deitzen dutena, zure biografiaren hainbat datutik abiatuta zenbaterainoko erakargarritasuna duzun esaten dizuna: zure ugazaba izan daitekeenarentzat, bikotea aurkitzeko orduan... European oraindik ez gara iritsi puntu horretaraino. Gaur iragarri dezakegu jendeak zer erosi nahi duen eta, datu horiekin, baita behar ez diren gauzak laga egiteari”

(DAVE EGGERS, IDAZLEA)

“Frantziako katolikoak berriro jabetu dira duten indarrak, argi erakutsi duten moduan homosexualen arteko ezkontzen eta sexu bereko bikoteen adopzio eskubidearen aurka egindako manifestazioetan. Ezkutuan zegoen boterea zen eurena. Argi dago katolikoek ume gehiago ekartzan dutela mundura eta baita balore gehiago transmititzen ere. Horregatik uste dut musulmanak hobeto integratuko lirakeela katolizismoa izango balitz Estatuko erlijioa. Holako estatu batean, bigarren mailako gutxiengo errespetatuaren rolean, musulmanak askoz erosoago sentituko lirake. Erlijioa asko baloratzen dute”

(MICHEL HOUELLEBECCO, PENTASALARIA)

“Gizonezkoek boterea bilatzen dute batez ere; emakumezkoek, aldiz, eskubideak izatea. Haiek dutenari eusten diote; haiek seme-alaben alde dihardute. Baina horregatik ez dute zertan pertsona hobeak izan behar. Emakumea zenbat eta askatuago, demografia beherago; garatzearekin batera, seme-alaben kopurua jaitsi egiten da. Japoniako enpresa baten eusten nintzen, 14 behargin zituen -24 eta 30 urte artekoak-, eta batek ere ez zuen haurrik. AEB-etan gauza bera: ‘zuriek’ ez dituztenez seme-alaba nahikorik, hurrengo hauteskundeetan beltzak eta latinoak gero eta indar gehiago joango dira hartzen”

(AGNIESZKA HOLLAND, ZINE-ZUZENDARIA)



LEIRE NARBAIZA

Xenofobia eta matxismua Eibarren

Eibarren beti izan da jendian hartu daben herrixa. Ez dakit noiztik etorri izan diran kanpotarrak gurera biharrera. Herittar gitxi egongo da zortzi aitxitxamamak eibartarrak dittuanik. Nik neuk, esate baterako, bakarra. Etorri izan dan jendia ingurukua zein urrinekua izan da. Markiñarra zein txinatarrak, beti sasoiar arauera. Bolada batzuetan, Espainiako estatukuak; hurrenguan Marokokuak, beste batzuetan Latino Amerikakuak edota Europako ekialdekuak. Azken aldian, baiña, komentario kezkarrixak nabil entzuten. Jakin dot Urkusuko parkiari "el parque de las moras" deitzen detsela batzuek, gaztelania ederrian, jakiña. Itzela begittantzen jata. Izen horren pian ezkututzen dana bildurgarria da: xenofobia, matxismua. Eta espainiolismua be bai! Batetik, andrazko hōnek markatzen ditte modu gatxesgarrian musulman painelodunak diralako. Eta erlijijua nahastatzen dabe jatorri eta sexuakin *totum revolutum*, bardin detse. Bestetik, matxismua, emakumiak seiñalaten dittuelako. Ikusgarrixaguak diralako, nahiz da gizon musulmanak askoz gehixago izan herrixan. Mora berbia be xenofobia da, eta oso espainiola, sentidorik txarrenian. Zer pentsaua emotiaz gain, tristura handixa eragitten desta kontu honek. Nun geratu da gure Eibar ha? Halakorik esan aurretik, buelta bi emon buruari, mesedez!

Sozialistak Tomas Meabe omenduko dabe gaur

Euskadiko Gazte Sozialistak eta Eibarko PSE-EE alderdixak gaur arratsaldian, 18:30xetan omenduko dabe Tomas Meabe, bera gogoratzen daben plakia dakan Casa del Pueblon egingo daben ekitaldian. Meabek sortu eban Gazte Sozialistak taldia, 1903an. Julia Iruretagoienarekin ez-



kondu eta gero Eibarren bizi izan zan Meabe eta, orduan sasoiar, "Adelante" astekari sozialista zuzendu eban. Omenaldixan Chus Graciet (Tomas Meabe Fundaziñoko presidentia), Azahara Dominguez (Euskadiko Gazte Sozialistak-eko idazkarixa), Omar Anguita (Espainiako Gazte Sozialistak-eko idazkarixa) eta Eneko Andueza (Gipuzkoako PSE-Eeko idazkarixa) egotia dago aurreikusita.

asteko
169
datua

txakur dagoz Eibarren erroldatuta, baiña hortik kanpora iñun registratua ez daguezen txakurrak badagoz; Marcan Huella, eskualdeko txakurren aldeko alkartiak urtebetian 90 txakurrendako jabiak topau dittu.

'Elkartasun Bekak' jasotzeko epia zabalik

Eibarko Udalak 'Elkartasun Bekak' programaren beste ediziño bat jarri dau martxan eta bi



beka emongo dittu herriko gazterixiaren artian nazioarteko elkartasunaren baloria sustatzeko. 3.000 euro bideratuko dira 1.500 euroko beka bi emoteko. Bekak jasotzeko, biharrezkua izango da proiektuak GKE baten bittartez egittia eta proiektua garatuko dan herrialdian gitxienez bi hillabete-ko egonaldixa egittia. Eskaeria egitten daben pertsonak 20 eta 40 urte artekuak izan biharko dira, hiru urte lehenago Eibarren erroldatuak, eta aurkeztuko daben proiektuaren antzeko beste beka bat jasota ez eukitzia. Abenduaren 11an amaittuko da eskaerak egitteko epia eta Pegoran egin biharko da.

Bangladeshko janarixen taillarra azaruaren 21ian

Bangladeshko sukaldaritza gertutik ezagutzeko aukeria egongo da "Munduko janarien" inguruan ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako taillarren lehen saiuan. Azaruaren 21ian, Portaleko 3. solairuan dagan sukaldian, 18:30xetatik 20:30xetara egingo da taillarra. Duan izango da eta nahi daben guztiendako irekixa, plazak bete arte. Halanda be, biharrezkua da izena emotia ...eta kitto!ko 943 20 09 18 telefonuan edota ongietorri@etakitto.eus e-mailian. Urtarrillaren 30 eta 31an, barriz, pella eta torrada taillarra egingo da, eta martxuaren 20xan Marokoren txanda izango



da. Amaitzeko, apirillaren 24an Nepalgo janarixetan oiñarritutako saiua eskinduko dabe.

Asteburu betia dake Untzagako jubilauek

Urteroko moduan, bixar arratsaldian, 18:00etan, El Corte Inglesak babes-tutako moda desfilea egingo dabe Untzaga jubilaue etxe-kuak. Arropak erakusteko modeluak Untzagako bazkidiak izango dira eta, atsedendaldian, Marcos Gimeno umorezko saia eskinduko dau. Eta bixar, barriz, Untzagako jubilaue abesbatzak El Corte Inglesian abestuko dau, 18:00etan, dendako fatxada apaintzen daben Gabonetako argiak ixotuko dittuela eta, ekitaldixa animatzeko gonbidapena jaso dabe eta.



autuan



"DENAK PARISERAT" AURKEZTUKO DABE

Bakearen Artisauak, Bagoaz, Etxerat eta Sareekin batera "Denak Pariserat" mobilizaziñua deittu dabe Parisen abenduaren 9rako, "euska presueri aplikatzen jakuezen salbuespenekin amaitzeko lehen pauso modura". Hori dala eta, ekitaldixaren inguruko aurkezpen batzarra egingo da eguaztenian, 19:00etan Kultun. Aurkezpenian Emilie Martin, Bagoazeko kidiak ekimenaren barri emongo dau, Iparraldeko egoeria zein dan azaltziarekin batera, bideokonferentzia bittartez. Horrekin batera, Eibartik hara juan nahi dabenendako autobusa antolatzen ari dira eta izena emoteko Buenos Aires eta Beleko tabernetara juan biharko da.



Berakatz Zopa Txapelketaren bigarren ediziñua jokatuko da bixar

Eibarko Sarek antolatuta, bixar jokatuko da Eibarko II. Berakatz Zopa Txapelketia, parte hartzera animau diran bikotien artian. Untzagan izango da, 12:00xetatik 13:30xetara bittartian eta hiru onenendako sarixak (150 euro eta txapelak, 100 euro eta 50 euro) egongo dira. Sari banaketia egin eta jarraixan, lehiaketarako preparatzen dittuen zopak probatzeko aukeria egongo da, hantxe bertan egingo dan herri-dastaketan.



Funeraria-Ehorztetxe
Mugica

<p>EIBAR</p>  <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p>  <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p>  <p>24 orduko zerbitzu iraunkorra</p> <p>943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	



centro médico eibar

URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreak / 1. solairua
 ☎ **943 12 02 00** Faxa: **943 12 02 04**

1) Kardiologia	11) Barne Medikuntza
2) Zirugia	12) Radiologia
3) Dermatologia	13) Urologia
4) Dietetika / Nutrizioa	14) Traumatologia
5) Análisi Klinikoak	15) Koloproktologia
6) Ortodontzia	16) Erizaintza
7) Otorrinolaringologia	17) Foto-depilazio
8) Pediatria	Unitatea
9) Psikiatria	18) Ginekologia BERRIA
10) Neurologia	19) Psikologia BERRIA

Martitzenian hasiko da Eibarko tabernarixen arteko pintxo lehiaketaren 16. ediziñua

Martitzenetik eguenera bittartian jokatu da Eibarko tabernarixen arteko San Andres Sarixa XVI. Pintxo Lehiaketa, Arrate Kultur Elkarrekin antolatuta, EMGI, Eibarko Udala eta ostalarixen laguntzarekin. Aurten 26 tabernak hartuko dabe parte, okasiñorako sortu daben pintxo berezixekin: Albert, Amesti, Arkupe, Aterpe, Birjiñape, Chalcha, Dos de Mayo, Fox-

tter, Hirurok, Ipur, Ipurua, Kontent, Koskor, Kultu, Maixa, Ongi Etorri, Paulaner, Su Beroa, Txoko, Astelena, Batzoki, Belleko, Chic, Laubide, Slow eta Trinkete.

Lehiaketa egunetan egun osuan eskindu biharko dabe aurkeztutako pintxua, 1'5 euro eta 2 euro bittarteko prezian. Irabazliak zeintzuk diran datorren asteko barixakuan emongo dabe aditzera

eta sarixak, barriz, San Andres egunian banatuko dittue: Pintxo onenari sarixa (150 euro, diploma eta garaikurra), Bertako eta garaiko produktua hobekien erabiltzen dabeneri sarixa (150 euro eta diploma) eta Publikuaren sarixa (150 euro eta diploma). Azken hori erabagitzeko kaja bat eta botua emoteko papelak banatuko dittue tabernetan, bezeruak botua emoteko.



Debabarrena protagonista Donostiako Boulebarrian

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Turismo Saillak 'Eskualdeen Txokoa' egitasmia jarri dau martxan Donostiako Boulebarrian dakan 'Explore San Sebastian Region' turismo-buleguan. Gipuzkoako eskualdietako herri eta baliabide turistikuak ezagutzera emotia da ekimenaren helburua, eta azaruari zihar Debabarrena izango da bertan egongo dan eskualdia.

'#BiziDebabarrena' lelopian aurkeztu zan Debabarrena turismo-buleguan hillaren 8xan eta eskualdeko turismo eskaintza emon eben ezagutzera. Eibarko Armagintza Museotik hainbat bizikleta eta josteko makiña eruan zittuen Donostiara, eta bertan bildu ziranen arreta piztu eben. Gure herriko ikur honek ikusgai egongo dira Boulebarrian eta beste ikur batek, Eibar KEk, autobusa eruangi dau bertaraiño, nahi dabenak barrutik ezagutzeko. Gaiñera, Ipurua foball zelaixan bisita gidatua egitteko sarrerak zozketatuko dira.



Txakurrendako eremua Itzioko parkian

Itzioko parkiak txakurrak pasiatzeko 495 metro karratuko eremua estrenau dau aste honetan. Azken hillabetiotan Udalak eta Marca Huella animalien defentsarako alkartiak egindako biharraren ondoriozua da parkia eta beste herri batzuetan egindakua hartu dabe oiñarri. Itzioko berdeguniaren zati bat hesiz inguratu dabe txakurrak solte ibiltzeko, pertsonen eta animalixen arteko elkarbizitza errazaguarizateko asmuarekin. Esparrua egokitzeko lanen kostua 3.800 eurokua izan da (BEZ barne) eta Marcan Huella alkartiak kartel bat prestatuko dau eremuaren erabiltzailien eskubidiak eta obligaziñuak zeintzuk diran azaltzeko.

Gaztteri begira egindako aurrekontua eskatzen dau EGIk

Eibarko EGIk, EAJren gazterixiak, gaztiendako aurrekontu parte-hartzaillia egitteko eskaeria egin detsa Udal Gobernuari. "Udala gazterixiaren biharrerri erantzuteko gai ez bada, gaztiek euren ideiak partekatu, eztabaidatu eta errealitate bihurtzeko baliabidiak jartzia gitxienez", eskatzen dabe jeltzale gaztiek. Holan, aurrekontuan herritarren erabagixaren esku lagako diran 800.000 euruetatik 100.000 euro gaztiendako lagatzia aproposa izango zala begittantzen jake.

EGIkuek "argi" dake PSEk gazterixiarengako sentsibilitadade "oso txikixa" dakala. "Gazte planak, adibidez, bi urte daroia kadukatuta eta ez zan ebaluatu be. Beste barririk be ez da onartu", gogoratzen dabe. Gaiñera, aurrekontu parte-hartzailliak martxan jartzeko planteamendua kritikatu dabe. "Nahasgarrixa dala begittantzen jaku".



TUTULUMENDI



IDURRE IRIONDO

Aurten be ospatuko dabe San Andres Gasteizko eibartarrak

Eibar-Gasteiz alkartiak XIX. San Andres Afarixa antolatu dau. Datorren asteko barixakuan, azaruaren 24an ospatuko dabe jai-xa Gasteizen, 21:30xetan Andere jatetxian hasiko dan afarixan. Azken urtiotako martxari jarraituta, aurten be Duo Amanecer bikotiak habanera doiñuekin girotuko dau afarixa eta, horrekin batera, Eibar foball taldiak eta Gasteiz eta Eibarko Udalak emondako oparixak banatuko dittue. Afaltzen hasi baiño lehen, 19:30xak



aldera Toloño tabernan txikiteua hasiko dabe. Alkarteko kidiak diñue-nez, "Alavesen kontra Mendizorrotzan jokatu-ko daben derbixaren bezperan batzeko primerako atxakixa izango dogu. Aupa Eibar eta gora Gasteiz!". Izena emoteko eibargasteiz@gmail.com helbidera idatzi leike edo, bestela, 659 16 88 78 telefonora Whatsapp bialdu.

Gasteizen bizi diran eibartarrak ez dagoz Sanandresak barkatzeko.



Banatu dabe Gure Balioak Saria

Aurreko astian jaso eban Felix Etxeberria elgoibartarrak Gure Balioak Saria 2017, Debegesa Garapen Agentziak, Mendaroko Udalarekin batera, eta DanobatGroup enpresaren laguntzarekin, Mendaron egin eban ekitaldi hunkigarrian. Sarixa emonda Elgoibarko alfabetatze eta euskalduntziaren, Ikastolaren eta Elgoibarko Izarra Kultur Elkartearen sorreran eta garapenian egindako biharra aitortu nahi izan zetsen, bestiak beste. Felix Etxeberriak iaz errekonozimendu bera eskuratu eban Nerea del Campo eibartarraren eskutik jaso eban sarixa, Juan Luis Baroja Collet artistaren "Balioen artikulazioa" brontzeko artelana. Esker oneko hitzak izan zittuan omenduak eta Loli Canales emaztiari eskindu zetsan sarixa. Ekitaldixan Maite Maiora mendi korrikalari mendarorarrak hitzaldixa emon eban eta musikiak be euki eban bere tokixa Juan, Nerea eta Maddi Arriola aita-alaben eskutik.



**Zerutik
 gertuago...**

**Valentin
 Jauregui
 Albizuri**

1918-XI-11- 2017-XI-11



EMON ESKUA EUSKERIARI

Euskararen Eguna gero eta gertuago dugu. Aurten, gainera, abenduaren 3a inoiz baino indar gehiagorekin etorriko zaigu. Eguna domekan eroriko da eta horrek eibartarron parte-hartzea handiagotzeko aukera eskainiko digu. Antolatu diren ekitaldiak ere maila berean garatu dira eta herriko Euskalgintzak egitarau bikaina prestatu du eguna benetan berezia izateko asmoarekin, tartean herri-bazkariak izango duen protagonismo nagusiarekin.

Aurtengo Euskararen Eguna EMON ESKUA EUSKERIARI izango du goiburua. Eta eguneko ekitaldietako batek, bereziki, horrekin izango du zerikusia, horma-irudiak osatuko baitira eskuekin.

Eibarko Euskalgintzako taldeek asteak daramatzate elkar-tzen, eguna ahal den eta hobetoen antolatzeko asmotan. Ikas-tetxe, kultur-, kirol-talde eta norbanakoak batzen dituen mahai horrek -bide batez esango dugu bertan denontzako lekua da-goela- lan bikaina dihardu egiten, egun ezin borobilagoa prestatzeko ahaleginean.

Aurtengo berritasunetako bat Eibarren Akebai plataformak ekimenari eskainiko dion babesean aurkituko dugu, bai arlo logistikoa zein ekonomikoa. *“Horri esker, ekitaldi indartsuagoa egingo dugu aurten. Izan dira denbora gehiago eta programazio handiagoa eskatu duten urteak ere, baina azken urteotako pare bat orduko ekitaldiak egun osoko jaia izatera pasatuko dira oraingoan”*, diote antolatzaileek. Hori aldaketa nagusia izateaz gain, egunean bertan ospatzeak ere berebiziko garrantzia hartzen du. *“Aurrekoetan asteburuan tokatu izan denean aurreko barixakuan ospatu izan dugu, batez ere ikas-tetxeen inplikazioa oso handia izaten delako eta hori aprobetxatzearen, baina aurten Euskalgintzako Mahaia erabaki du egunean bertan ospatzea”*.

Auzoetatik kantuan

Aipatutako Euskalgintzako Mahaian aipatu zuten Eibarren kantuararen inguruan batzea gustatzen zaigula, kantuan jarduteak jende asko elkartzen duela. *“Orain dela urte batzuk Euskararen Eguna kalean abestuz ospatu genuela eta jende mordo batek hartu zuen parte. Hortik ondorioztatu genuen egitarauko zatietako bat abesteari emango geniola”*. Aurrekoari

Euskararen Eguna abenduaren 3an

gehitu zaio Akebairen eskaera: Guinness Errekorean parte hartu zuten herritarrek berriz ere aktibatzea. Eta ekimenaren hasiera auzoka egingo da, Guinnessen egin zen bezala: Urkizu-behekal-detik abiatuta, Ipurua-Urkitik, Amaña-Legarretik eta erdikaldetik. "Auzoetan 12:00etan elkartu ondoren, abesten joango dira Untzagaraino, han elkartu eta kantuan jarraitzeko. Horretarako bost abesti aukeratu ditugu: 'Hiru gizon ilustre', 'Eskuetan', 'Euskararen Txantxangorria', 'Euskaraz bizi nahi dut' eta 'Euritan dantzan'". Abesti horiek, beste bostekin batera, kantu-liburuxka batean bilduko dira, herritarren artean banatzeko. "Kantu errazak dira, entsaiorik gabe kantatzeko modukoak. Herritar guztiei irekita dago egun berezi horretako ekitaldia. Beraz, animatu! Untzaga jendez bete behar dugu-eta! Jakizue auzoetan-eta emango horren guztiaren berri".

Gazteak ere parte hartzera animatu nahi dituzte antolatzaileek: "Koadrilan, lagunekin etor daitezela, giro polita egongo da-eta".



Parrapas erromeria taldeak giroa du bazkaldu osteko giroa. Argazkiko bost gazteek sortu berri duten taldea ezin aproposagoa da horrelako egun berezi baterako.



HORMA-IRUDIA: Emon eskua euskeriari goiburuari lotuta egingo da horma-irudia, Untzagan; 12:30etik 14:00etara. Oihal luze batzuk jarriko dira, eskuak margoan busti eta oihaletan estanpatuko ditugu, euskerari eskua ematen diogula irudikatuz. Eskuak zikindu nahi ez duenak ez du aitzakiarik izango, eskularruak ere egongo dira-eta. Gero horma-irudi horiek Untzaga inguruan jarriko dira ikusgai egun batzuetan. **HERRI-BAZKARIA:** Horma-irudia amaitu ondoren herri-bazkaria egingo da, Untzaga plazan egongo den karpn. 400 lagunentzat izango da lekua. Bazkaria Bizimiña Elkarte-

ak prestatuko du eta paella, postrea eta kafeak osatuko dute.

Bazkarirako txartelak honako tokietan daude salgai: **Amesti** (Amaña), **Cepa** (Urki), **Ipurua** (Ipurua), **Albert** (Txaltxa Zelai), **Ez Dok** eta **Buenos Aires** (T. Etxebarria), **Manuel** (Urkizu), **Amañako Ogi-Berri** eta **...eta kitto! Euskara Elkarte** (Urkizu). Prezioa: 7 euro ume, langabetu eta jubilatuek, 10 gainontzekoek.

ERROMERIA: Bazkalostean izango da, Parrapas taldearen eskutik: talde gaztea, eibartarra eta euskalduna dugu, oso egokia okasiorako. 16:00etan hasiko da eta ordubeteko saioa eskainiko digute.



Iazko Euskararen Eguneko irudia.



UXUE IGARZA: "Taillar arteko marketing eta publizidade estrategiak".

2.000. urtean kaleratu
genuen azala



8 urte bete zituen egunean bi gitarra berri jaso zituen Andrea. Ez zen ohiko oparia izan, berak irabazi baitzituen gitarra biak, Jose de Azpiazu lehiaketaren sari nagusi bi irabazi zituenean.

17 urte geroago, hurrengo asteko barixakuan (hilaren 24an), laugarren aldiz joko du bere jaioterrian. Andrea Gonzalezek "ordubete inguruko" gitarra kontzertua eskainiko du Coliseoan, 20:30ean hasita. Estilo ezberdinez jantziko du ekitaldia: Manuel de Fallaren doinuak, Joaquin Clerch konpositorearenak, Antonio Manjon musikagilearen "Aire Vasco" kantaren aurkezpena. Ez dira faltako Naxos nazioarteko konpainiarekin grabatu berri duen bere lehen diskoko zatiak ere.

ANDREA GONZALEZ

(gitarrista):

"Musikari on batek jendearekin bat egiteko ahalmena izan behar du"

– Zer da zuretzat Coliseoan jotzea? Ez da lehen aldia jaioterrian jotzen duzula, ezta?

Ilusio ikaragarria egiten dit, aurretik izandako esperientziak ere oso positiboak izan zirelako. Oraindik gogoan ditut Eibarren jo ditudan hirualdiak: 14 urterekin bakarrik jardun nuen, gero bikotea osatu nuen nire irakasle batekin eta, azkenik, orkestarekin. Guztiak izan zitzaizkidan aberasgarri eta, formatu ezberdinak eskainita ere, jendeak oso ondo hartu ninduen, hori egon zen beti nahi izan dudana gertutasun hori.

– Zelan prestatu duzue 24ko kontzertua? Egongo da inprobisaziorako tarterik?

Egitarrak zehatzik prestatu ez dudana arren, eskainiko ditudan lanak ataletan banatzeko asmoa dut, guztiak ere aurkezpen labur batekin lagunduta, jendea kokatzeko. Hori bai, abuztuan kaleratu nuen nire lehen diskoko hainbat lanek protagonismoa izango dute kontzertuan eta, bestelako atalei dagokienez, musika espainiarra, Kubako konpositoreena eta beste ez dira faltako.

– Hainbeste urte kanpoan egiteak ez dizu herriminik pizten? Zenbatero etortzen zara Eibarrera?

Ahal dudanean, batzuetan gehiagotan, beste batzuetan gutxiago. Hiru bat aldiz bai urtean: Gabonetan beti, eta uda aldean as-

kotan. 2010. urte amaieran irten nintzen ikastera eta, ordutik, kanpoan nago, Alemaniaren batez ere. Hala ere, nire kultura etxekoa da eta ez naiz germaniarrekin larregi identifikatzen.

– Zenbat urte geratzen zaizkizu oraindik Alemanian?

Azken urtea geratzen zait. Orain arte karrera egin dut eta baita masterra ere. Ez da bide erraza izan, baina ahalegina eginez eta konstante izanda asmoak bete ahal izan ditut. Orain maila gorena lortzeko nabil ikasten. Ez gara asko horraino heldu garenok eta kontzertista izateko diplomaren bila dihardut; graduazioa eskuratzeko orkestarekin joko dut.

– Gitarra ikasketak eta horrelakoak ez dira izaten luzeak eta neketsuak? Zenbat ordu eskatzen dizute egunero?

Egia da prozesuak luze jotzen duela, azken batean kontuan baduzu, gainera, ikasketa horiek bizitza guztian lagunduko dizutela, zurekin eramango dituzula. Baina nik ez dut ikasten gero sari bat izateko, gustatzen zaidalako baizik, gitarrarekin gozatzen dudalako. Ez dago ezer handiagorik kontzertu bat eskaini ondoren jasotzen dituzun zorion guztiak baino. Egunerokoan, bestalde, lau bat ordu eskaintzen dizkiot gitarrari.

– Zer da beharrezko musikari ona izateko? Zelako dohaiak izan behar ditu?

Andrea irabazitako sarien artean, Valentziako Alhambra Gitararak, Erromako F. Sor, David Russell eta Linaresko Andres Segoviako nazioarteko lehiaketak daude.



Profesionalki jarduteko orduan, argi dago teknikaren jabe izan behar duela. Gero, zaila izan daiteke, nortasuna eta publikoarekiko enpatia. Kontzertuak ez dira kirol lehiak: hemen ez du irabazten lehenengo heltzen denak, mundu hau subjektiboa da oso, pertsonala guztiz. Jendeari gustatzen zaiona misterioa bihurtzeraino.

– Baduzu idolorik zure esparruan, kontzertisten artean?

Erreparo piska bat ematen dit izenak ematen hastea, baina behin bustitzen hasita Paco de Lucia aipatuko nizuke. Bere musika flamenkoa bada ere, lehen esandako publikoarekin sortzen zuen harreman berezi horrek estilo guztietako idolo bihurtu zuen. Askok miresten dit Martharen Argerich pianistaren lana ere, zelako indarra erakusten duen aktuzio bakoitzean.

– Eta, irabazitako saririk, zein izan da garrantzitsuena zuretzat horietatik? Zeinek piztu zizun ilusio hanen?

Azkenak, iaz irabazi nuen Alhambra nazioarteko lehiaketako lehen sariak. 14.000 euroko saria izateaz gain, aukera eman dit atera berri dudana nire lehen diskoa kalera zeko. Ordubete inguru irauten du -63 minutu zehazki- eta hainbat mugimendutan banatuta dago. Oso pozik geratu naiz egindako lanarekin.

Errefusa biltzeko EDUKIONTZI GRISA ekarriko du Mankomunitateak

Aurreko barixaku goizean egindako prentsaurrekoan azaldu zuten, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak udalerrri guztietara zabalduko du errefusa biltzeko edukiontzia grisa, "Europako birziklatze-alarreko helburua lortzeko eta 2020. urtean % 50a gainditzeko" abian jarri duen strategiaren barruan. Gainera, iazko abenduan Deban eta Mutrikun ipinitako edukiontzia grisarekin lortutako emaitzek (%55'49 Deban eta %58'98 Mutrikun) edukiontzien bidezko gaikako bilketa-sistemaren erabilerari babesa ematen diotela pentsatzen dute. 2017ko irailera arteko datuak eskuan, Arcadio Benitez Mankomunitateko presidentek "positibotzat" jo zituen emaitzak: gure eskualdean hondakinen %48'45 birziklatzen dira. Hala ere, emaitza hobekak lortzeko herritarrak sentsibilizatzen jarraitu beharra dagoela esan zuten. Mankomunitateak 390.190 euroko inbertsioa aurreikusitako Debabarrenean 328 edukiontzia berri ezartzeko: errefusa edo hondakin ez-birziklagarrietarako edukiontzia grisak edukiontzia berdea ordeztuko du. Edukiontzia berriek, bestalde, txartel bidez zabaltzeko sistema darabilte eta, txartelak duen txipari esker, erabilera eta parte-hartze maila kontrolatuko dituzte.

Zerbitzu berriaren inguruko azalpenak emateko informazio-kanpaina egingo da. Batetik, hondakin organikoetarako edukiontzia marroia erabiltzen duten herritarrak gutuna bidaliko zaie etxera gaikako

bilketari buruzko informazio-arekin eta organikoaren bilketan izena emanda ez dauden herritarrei, berriz, "gaikako bilketan parte hartzeko behar diren material guztiak jasotzeko" gonbidapena egingo diegu. Gainera, arretarako bulegoak jarriko dira, "edukiontzia irekitzeko txartel pertsonalizatuak hautatzeko eta gainerako materialak jasotzeko" eta doako telefona (900 10 49 23) ere ipini dute martxan, zablantzak argitzeko.

"Konprometitu gaitzen Eibarrekin" sentsibilizazio-kanpaina

Bosgarren edukiontzia ezarpenaren harira, Eibarko Udalaren Ingurumen Sailak azaroaren 24ra arteko iraupena izango duen kanpaina abiarazi zuen atzo, Hondakinen Prebentzioari buruzko Europako Astearen harira herritarrak sentsibilizatu eta kontzientziatzeko asmoz. Jon Iraola Hirigintza eta Ingurumeneko zinegotziak adierazi zuenez, "herritarrek gaikako bilketan gehiago parte hartzea eta birziklatzearen emaitzak hobetzea lortu nahi dugu. Horrekin batera, denon erantzukizuna da Mankomunitateak gure esku jartzen dituen baliabide materialak ondo erabiltzea, hondakinak ondo kudeatzea eta hiria garbi edukitzea. Denok ahalegindu behar dugu Ingurumenaren mesedetan".

Kanpainaren barruan, informaziorako gune ibiltaria ipiniko dute martxan herriko auzo ezberdinetan. Karpa baten arretarako mahaia jarriko dute, informazio-panelak eta birziklatzea errazteko materialak erakusgai ipiniko dira, gaikako papearontzi bat... Gainera, hondakinak birziklatu eta kudeatzeari buruzko informazio-liburuxka batzuk banatuko dira, eta



Herritarrak sentsibilizatzeko kanpaina ipini dute martxan eta, horren harira, haurrentzat hainbat jarduera antolatu dituzte.

nahi duenak inkesta bati erantzuteko aukera ere izango du. Astelehen arratsaldean Amañan egon ziren eta datozen egunetan honako orduetegiari jarraituko diote:

Azaroak 17 barixakua: Untzaga plaza, 11:00/13:30 eta 16:30/19:00

Azaroak 18, zapatua: Urkizuko parkea, 11:00/13:30

Azaroak 20, astelehena: Amañako pasealekua (T. Anitua, 5), 11:00/13:30

Azaroak 22, eguaztena: Untzagako harmailak, 11.00/13:30

Azaroak 23, eguena: Urkizuko parkea, 16:30/18:30

Azaroak 24, barixakua: Untzagako harmailak, 11:00/13:30 eta 16:30/19:00

Informazio-karpa horrez gain, haurrentzako jarduerak ere antolatu ditu Udalak: gaur 16:30etik 19:00etara, birziklatutako materialez osatutako soinu-erakusketa interaktiboa ipiniko dute Untzagan (euria egingen badu, erakusketa udaletxeko arkupeetan ezarriko da); azaroaren 18an, Urkizuko parkean, haurrentzako tailer bat antolatuko dute 12:00etatik 12:45era, materia organiko birziklatzeko helburuarekin; eta azaroaren 24an, birziklatzeari buruzko beste tailer bat antolatuko da haurrentzat, Untzaga plazako harmailetan, 17:30etik 18:15era.

Bestalde, azaroaren 21ean, 18:30ean, "Eibarko hondakinen kudeaketaren aldaketek" hitzaldia emango du Portalean Mankomunitateko gerenteak. Eta azaroaren 28an Garbigunean bisita gidatua egingo da, kanpainan zehar informaziogunean izena eman ondoren instalazio horiek ezagutu nahi dituzten guztientzat.



Benitez eta Iraola, aurreko barixakuan eskainitako prentsaurrekoan.

HEGO-AMERIKARA BIDAIA JOKOAN Gazteak Lankidetzan 2018 kartel lehiaketan

Euskadin errolatuta bazaude, 18-30 urte bitartekoa bazara, Euskadiko Gazteak Lankidetzan programarekin bat datorren kartel bat egiteko ideiarekin bat baduzu eta lehiaketara aurkeztera animatzen bazara, trukean aparteko bidaia bat irabazi dezakezu. Kartela egiteko teknika ezberdinez baliatu zaitezke: argazkiak, marrazkiak, collageak... Irudiarekin batera, gazteak programan parte hartzerari animatzeko proposa den goiburua ere bidali beharko duzue parte-hartzaileek. Kartelaren irudia JPG formatuan, 72 p.p.p. bereizmenarekin eta 70 X 50 zmk neurrian (bertikalean zein horizontalean) aurkeztu beharko da eta goiburua edo bestelako logoak ez dira irudian agertu behar, irabazle suertatzen den kartelaren maketazioa lehiaketaren antolatzaileek egingo dutelako. Epaimahaikideek lanen originaltasuna eta programekin duten lotura kontutan hartuko dute kartela aukeratzeko orduan.



Lanak aurkezteko epea abenduaren 11ra artekoa da eta kartelen irudiak, izen-emate orriarekin batera gazteak@gmail.com posta elektronikora bidali behar dira. Euskadiko Gazteak Lankidetzan programako kartel garailearen egileak joan-etorriko hegazkin txartela irabaziko du Hego Amerikako herrialde batera bidaiatzeko. Lehiaketan sarituriko kartela, berriz, 2018ko Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa iragartzeko erabiliko da, internetarako euskarrietan zein paperean.

Ikasle gazteek kalitatezko edukiak Wikipedian aurkitu ditzaten lankidetzan-hitzarmena

Elkarlanean oinarritutako Wiki proiektuak hedatzea eta parte-hartze kulturala zabaltzea helburutzat dituen Euskal Wikilarien Kultur Elkartek (EWKE), Eusko Jaurlaritzarekin batera, 12-16 urte bitarteko ikasleentzako nahitaezkoak diren edukiak Wikipedian aurkitu ditzaten lanean ari dira. Proiektu horren harira; unibertsitateekin elkarlanean dihar-

dute kalitatezko funtsezko 1.000 artikulua lortzeko eta, bide horretan, UEUK argitaratutako materiala funtsezko elementua izan daitekeela uste dute. Izan ere, itzulpenak baino, hemengo produktioa indartu nahi dute, "euskaraz dauden erreferentzia liburuak indartuz eta euskaraz egin diren testuliburuak eta ikerketen ikusgaitasuna handituz". Ildo horretan,

UEUK hamarkadak daramatza euskarazko produktioa sustatuz, "zientziaren alor guztietan material bikainak sortuz". Material gehiena buruxkak.eus liburutegi digitalaren webgunean jasota dago, deskarga liberako. Gauzak horrela, bikundeek lankidetzan-hitzarmena sinatu dute, Eusko Jaurlaritzaren proiektuaren barruan Wikilari egoiliar batek UEUKen Buruxkak-eko materialarekin lan egin dezan. Hiru hilabeteko epean buruxkak.eus guneko lagin bat aztertu, sailkatu eta lizentzien inguruko argipena egingo dute. Lagineko liburuak dauden irudi, testu eta abar EWKEren proiektuan osatu nahi diren 1.000 artikuluen zerrendarekin parekatuko litzaiteke. Era berean, buruxkak.eus-eko lagin hori Wikisource liburutegi birtualera ere igoko da eta interesgarriak izan daitezkeen irudiak, berriz, Commons-era. Beti ere egiletza onartuz eta buruxkak webgunera bideratuz. Hiru hilabeteko epe hori eta gero balorazioak egin eta, horren arabera, 2018rako beste proiektu bat abian jartzeko asmoa ere badagoela aurreratu dute.



Euskal Wikilarien Kultur Elkartek eta UEUK elkarlanean jardungo dute.

Urtero lez, azarua ailegatziaekin batera Beldur Barik jarrerria zabaltzeko, garatzeko, trebatzeko eta oihukatzeko aukeria emoten daben ekitaldi mordua antolatzen dira herri askotan, baita Eibarren be. Aurten, gaiñera, beldur bariko ahotsak sekula baiño ozenago entzuteko motiborik ez jaku falta, Beldur Barik Lehiaketia agurtzeko urtero egitten dan Topaketia Eibarren izango da eta. Abenduaren 2xa agendetan kolore morearekin markatzeko moduko eguna izango da, zalantza barik, baiña aurretik be izango dogu girotzen juateko aukerarik.



Beldur Barik jarrerriak herrixa beteko dau

Beldur Barik jarrerria esaten detse kultura matxista eta indarkerixa sexistaren adierazpenak kanbixatzeko konpromiso pertsonal zein kolektibua adierazten dittueneri. Hau da, neska eta mutillak ezberdintasun egoereri aurre zelan egitten detsagun erakusten daben jarrerak. Errespetuan, askatasunian, autonomixan, erantzunkidetasunian eta indarkerixaren erabateko bazterketan oifarrizten diranak. Izan be, danok dakagu gure buruak (eta gorputzak) zein gure ingurua kanbixatzeko gaitasuna, eta Beldur Barik programarekin horrelako prozesuetan laguntasuna emotia nahi dabe.

Asmo horrekin sortu eben programia 2009. urtian, "Berdinsarea" izeneko sarearen barruan. Gaur egunian Emakunde, Emakumearen Euskal Erakundeak antolatzen dau, Berdinsarea-Eudelen eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundien babesarekin eta Eusko Jaurlaritzako Hez-

kuntza Saillaren, Euskal Herriko Unibertsitatearen eta EITB-ren laguntasunarekin. Euskal Autonomia Erkidegoko udalak, tartian Eibarkuak, azaruaren 25ian gogorazten dan Indarkerixa Matxistaren Kontrako Naziñoarteko Eguna dala eta, alkarlanian jarduten dabe kanpaiñaren inguruko jarduerak antolatzen. Urterik urte, ekime-nak prestatzerakuan, indarkerixari lotutako kanpaiñetan azaltzen diran estereotipuetatik aldentzeko ahalegiñak egin dttue, bakarrik indarkerixa fisikora mugatzen diran eta emakumiak biktima moduan aurkezten daben irudixetatik haratago jua eta gaixari ikuspegi positibo bate-tik heltzeko asmuarekin. Izan be, gauzak aldatzia nahi badogu, andrak ahalduntzera animatzen daben mezuak indartu eta herri-ritar guztiak inplikatzia biharrezkua dala ikusi dabe.

Horrekin batera, mutillekin jarrera sexisteri aurre egitteko neurriak lantziari ga-

rrantzi haundixa emoten detse eta, erasuen aurrian, eurak modu aktibuan jardutera animau nahi dttue. Testuinguru honetan sortu eben Beldur Barik programia. Arduradunen berbetan, "etenbarik mugimenduan dagan eta haunditzen doian programia da, beti be inplikatzien diranen premiñeri egokitzen doiana, gaiñera".

2010ean lehiaketaren lehen ediziñua egin zanian 100 lan jaso zittuen, baiña harrezkero parte hartzen daben kopuruak urtetik urtera gora egin dau eta gaur egunian 300 lanetik gora izaten dira lehian. Gaiñera, bigarren ediziñorako ikuspegixa aldatu eben eta, lanak daken kalidadiari baiño, agertzen eben jarrerriari arreta ipintzen hasi ziran arduradunak. Horrekin batera lan guztiak beldurbarik.org web orri-xan ikusgai ipintzen hasi ziran eta jendiari botua emoteko aukeria zabaldu eben.

Aste honetan, astelehenian amaittu zan Beldur Barik lehiaketan parte hartzeko la-

ZURE IRRIBARREA BETI GUREKIN ERUANGO DOGU.



Egiazko laguna zutaz dena jakin eta lagun izaten jarraitzen duena da.

Kurt Cobain

"VITO"
Gaizka Vitoria Arano

nak jasotzeko epia eta aurtengo ediziñuan 316 lan aurkeztu dittue gaztiak lehiaketa orokorrera. Aurkeztutako lanak, betiko moduan, bi kategorixatan sailkatu dittue, adiñaren arabera. Eibarko zazpi lan jaso dittue antolatzailliak: 12/17 urte bittarteko kategorixan "Oihalak" (Mikel Arriola, Iker Entrena, Julen Leturiondo, Mónica Sarasqueta, Paula Alberdi eta Naroa Kareaga), "Niri zergatik?" (Josebe Hurtado Pozuelo, Alaitz Garate Agirreazaldegia, Andrea Blanco Cano, Leire Arce Rodríguez eta Nerea Olabarri Gaona), "Nahikoa da!" (Alaitz Cobo, Malen Jainaga, Ane Ordorika, Eider Ojanguren eta Leire Cabo), "Itxaropena" (Naia Martin Echaburu, Helene Larrazabal Onaindia eta Eider Martinez Guillen), "Imagina" (Naroa Garzo Diaz) eta "Beldurra bandoz aldatu dugu!" (Eneko Fuentes, Andrea Posada, Alex Zafra, Ibai Zafra, Abdelhamid Sanchez eta Ane Zafra) lehiatuko dira eta 18/26 urte bittarteko kategorixan, barriz, lan bakarra, "Artetik ahalduztzara" (Uxue Igarza Loyola, Jone Bengoa Urizar eta Marta Marina Larrañaga) izenburuko bideua aurkeztu dabe. Bideo guztiak, Eibarkuak zein beste herrixetakuak interneten, beldurbarik.org helbidian ikusi leikez.

Euskadi-Txekia nesken selekziñuak Ipuruan

Aurtengo egitarauari begira, Beldur Barik Topaketaz gain bestelako ekitaldi berezirik izango dogu Eibarren. Izan be, azaruaren 25ian, Indarkeria Matxistaren Kontrako Egunian, Euskadiko Futbol Selekzio Femeninoaren partidua jokatu da Ipuruan, 17:00etatik aurrera. Aurrez aurre Txekiako Selekziñokuak eukiko dittue. Partidurako sarrerak www.sdeibar.com/entradas webgunian erosi leikez eta, bestela, egunian bertan, partidua hasi baiño bi ordu lehenago, leihatillan be ipiñiko dittue salgai. Sarreriak 5 euro balixo dau. Andretxeatik adierazi dabenez, "partiduan, aurtengo Beldur Barik spot-a jarriko dabe eta 20:00etan Untzagan izango dan elkarretaratzera juateko jendia animauko dabe, bestiak beste".



Indarkeria Matxistaren Egunian jokatu da partidua Ipuruan.



lako ediziñoko sari orokorra Eibarrera ekarri eben.



Mutillak be badake zer esan indarkeria matxistaren inguruan; horregaitik neskekin batera gauzak aldatzeko lanian dihardue.

Beldur Barik herrixa

Eibar aukeratu dabe aurtan Beldur Barik herrixa izateko eta horren harira egingo da Beldur Barik Topaketa abenduaren 2xan. Egun horretan EAEko hainbat herritatik gazte mordua etortzia espero dabe antolatzailliak, eta horretarako betiko moduan Eibarrera gertatzeko doako autobusak egongo dira. Eta behin Eibarrera ailegatuz, Untzagan alkartuko di-

ra, 16:30xak aldera egun horretarako preparau daben programari hasieria emetoko. Batutako guztieri ongi etorrixa emon eta gero, Portalera abiatuko dira, han eskinduko diran taillerretan parte hartzeko. Taillarrak 12 eta 26 urte bittarteko neska-mutillari zuzendutakuak izango dira, mustruk eskinduko dittue eta parte hartzeko ez da biharrezkua aurretik izena emotia. Taillarren ondoren, trikitilarixak launduta Untzagara bueltatuko dira, han zain eukiko daben luntxean zeozer jan eta atzera be kalejiran urtetzeko, Coliseo antzokiraño. Han Beatriz Egizabal eta Ane Labaka izango dittue zain, sari bana-ketia egitteko gertu, eta orduantxe jakin-go dogu zeintzuk diran aurtengo lehiaketako irabazliak. Topaketaren inguruko dudaren bat eukiz gero Andretxeara deittu (943 70 08 28) edo idatzi (andre-txea@gmail.com) leike.

JUAN MARI NARBAIZA ARANA

1. URTEURRENA: 2016-XI-18

"Joan zara, gu joango gara, baina hemen gauden bitartean ez zaitugu inoiz ahaztuko"

ETXEKOAK




BIHAR, ARAZOAK 18, URTEURREN-MEZA EGINGO DUGU, ARRATSALDEKO 19:00-ETAN, SAN ANDRES PARROKIAN.



On egin!

GIDA GASTRONOMIKOA
...eta kitto! eta Barren astekarietan
argitaratutako jatetxe eta tabernen gida
2017ko azaroak 17



AGUIÑASPI taberna

Urkizu 22. EIBAR

943 12 80 86

Eguneko menua, menu berezia,
gosariak, plater konbinatuak, razioak,
bokatak, hanburesak, pintxoak...



ALBERT taberna

Armagin 1. EIBAR

943 70 21 87

Eguneko menua,
ostegunetik aurrera afariak,
asteburuko menua eta karta.



ARKUPE gastro pub

Isasi 2 . EIBAR

943 70 26 91

Gosariak, eguneko menua, karta,
talde-menua, plater konbinatuak,
hanburesak, catering zerbitzua.



ASTELENA gastroteka

Estaziño 7. EIBAR

943 20 70 32

Espezialitatea: txuleta, 30-160 eguneko
ondutako okela (zapora gehiago,
samurragoa, osasunerako hobea).



BAISI taberna

Urkizu 11. EIBAR

943 53 08 16

Espezialitatea: patata-tortilla,
Entsaladilla, bokatak, hanburesak...
Ardoetan aukera zabala.



BELAUSTEGI BASERRIA jatetxea

San Migel Gaina. ELGOIBAR

943 74 31 02

Ezkontzak, jaunartzeak, bataioak,
urrezko eta zilarrezko ezkontzak,
enpresa bazkariak eta kintoak. Karta,
eguneko menua eta dastatze-menua.



BIRJIÑAPE kafetegia-jatetxea

T. Etxebarria 16 . EIBAR

943 82 13 41

Eguneko menua, bokatak, talde bazkari
eta afariak, jaunartzeak, bataioak...
Zure aurrekontura egokitzen gara.



BOSSA gastroteka

Ego Gain 7. EIBAR

943 20 67 53

Etxean bezala. Gosariak, pintxoak,
bokatak, razioak, pizzak eta
hanburesak.



CHALCHA jatetxea

Isasi 7. EIBAR

943 20 11 26

35 eta 50 €tako menu berezia,
18 €tako eguneko menua, karta
Prezio guztietan BEZa barne.



FAUSTO taberna

Karmen 1. EIBAR

943 70 01 89

Menu bereziak,
betiko giro tradizionala,
eibartar peto-petoa.



FORCHETTA pizzeria

Arragueta 18. EIBAR (sarrera Bidebarrietatik)

943 25 77 55

Italiar pizza tradizionala, osagai fresko eta naturalekin. Egunero egindako artisau pasta, unean eskuz luzatua.



GABI jatetxea

Kalebarren plaza. ELGOIBAR

943 74 12 30

Hemengo jaki freskoekin egindako sukaldaritza. Jaunartzeak, bataioak, Lunch-ak, eguneko menua, karta, enpresa bazkariak...



IBAI-ONDO jatetxea

Giza Eskubideen parkea 1. ELGOIBAR

943 25 60 28

Bazkari tradizionalak, parrilla, enpresa menuak, karta eta eguneko menua.




KANTABRIA jatetxea

Arrate. EIBAR

943 12 12 62

Karta, menu bereziak, eguneko menua, enpresa bazkariak, ezkontzak, jaunartzeak, bataioak...



KILI KILI croissanteria

Ibarkurutze 12. EIBAR

943 20 24 01

Gosariak, pintxoak, bokatak, afariak eguneko menua, txokolatea eta txurroak, meriendak, ospakizunak...



LUZAIDE jatetxea

Mendarozabal z/g. MENDARO

943 75 61 66

Eguneko menua 12 € astegunetan. Asteburuetako eta jaiegunetako menua 14 €an. Pintxoak eta ogitartekoak arratsaldeko 20:00ak arte egunero.



SALENTO ristorante italiano

Pedro Migel Urruzuno 10. ELGOIBAR

943 74 01 96

Eguneko Menua, pizza italiarrak. Etkez etxeko banaketa aste guztian zehar.



SIGMA jatetxea

Zizilion 1. ELGOIBAR

943 74 85 31

Jaunartzeak, bataioak, urrezko/zilarrezko ezkontzak, menua, karta, enpresa bazkariak, kinto ospakizunak.




SU BEROA taberna

Bista Eder 11. EIBAR

943 47 77 79

Gosariak, eguneko menua, talde menua, pintxo bereziak, entsaladak, hanbursesak, razioak...



TIRO PITXON jatetxea

Arrate. EIBAR

943 20 88 59

Eguneko menua, menu bereziak, karta, ospakizunak. Bi jantoki (bakoitzean 80 pertsona). Astelehenetan itxita.



Hotel TXARRIDUNA jatetxea

Ermuaranbide 1. ELGOIBAR

943 74 04 90

Eguneko menua, kinto ospakizunak, enpresa menuak, karta, bataio eta jaunartzeak.



ZUBI GAIN taberna

Urkizu 11. EIBAR

943 25 40 60

Ogitartekoak, plater konbinatuak, tapak, entsaladak, pintxo bereziak... Etxerako zerbitzua: bapobapo.com.

“Puztuta” irten zen Usua Anitua Eibarko Armagintza Museotik. Harro. Metro karratu gutxi batzuetan herriko historian zehar ibilbidea egiteko aukera izan zuen eta herrikideek aurrera egin nahian sortutako gailu, tresna, produktu eta, azken finean, herriko industria sakonago ezagutu zituen. Geldirik geratzen ez den herria da Eibar, *“sormena lantzeko joera daukagu”*. Hortik abiatuta sortu du ‘Sormenaren sustraiak’, gaur egun herriaren ikur direnak sortzeko sormena izan dutenei gorazarrea, *“gure industria berpizteko gai izan diren eibartarrei omenaldia”*.

Sustraitik narrura, herriko sormenari omenaldia

Erakusleihen bizi bat dauka Calbeton kalean. Egunetik egunera eraldatzen ari den erakusleihoa, sormenaren eraginez eta sormenari omen eginez. Kokojatzen arkitektura estudioan bere erakusleihotan ekimen bat garatzeko aukera eskaini zion Nestor Pérez Valenciagak **USUA ANITUA**ri eta azken honek pentsatu zuen *“polita izango zela gure herriko sormenaren sustraien inguruko lana egitea”*.

Azaroaren 6an Kokojatzen leihorearen atzean jarri eta bere lanari ekin zion Usuak. Narrua lantzen du berak. Belarririkoa, bandlerak, motxilak, diru-zorroak, betaurrekoentzako zorroak eta abar egiten ditu eibartarrak, *“denak narruzkoak”*. Normalean naturari lotutako gaiekin apaintzen ditu bere lanak -*“hostoak, zuhaitzak, algak...”*-, baina ‘Sormenaren sustraiak’ proiektuan gure herriaren ikur diren industria eta produktuak izan ditu inspirazio.

Bederatzi poltsa egingo ditu bihar -azaroaren 18a- amaituko den proiektu honetan. Hasieratik amaieraraino bertatik pasatzen den edonorentzat ikusgai egon da sormen eta lanketa prozesua, kartulina beltzean egindako zirri-borrotik narruzko poltsara. *“Hasieran lau mural marraztu nituen. Lehenengoan kalea marraztu*



Calbeton kaleko Kokojatzen arkitektura estudioan du Usua Anitua bere ekimena garatzeko aukera eta baita erakusleihen ere.

nuen, eta bizikleta eta Lambrettak azaltzen ziren bertan. Bigarrenean sukaldeko gauzak azaltzen dira, Solac-eko tresneria eta abar. Hirugarrenean bulegoko tresnak marraztu ditut, Casco gailuekin. Eta laugarrenean tailerra izan da gaia, eta poltsak egiteko tresneria islatu dut bertan: errematxatzeko makina, bi puntako konpasa eta abar”. Mural horietatik irtengo dira Alfa josteko makinarekin jositako bederatzi poltsak eta dagoeneko jaso ditu poltsa horiek erosteko eskakizunak.

Lotsatia dela dio Usuak, baina gustora ibili da erakusleihotan: *“Nire munduan sartzen naiz eta ondo eramaten dut”*. Kokojatzen estudioaren aurretik pasatu den jendeak ere gustora hartu du proposamen berria, *“jendea begira geratzen da”*. Antzinako gauzak marraztea da

horren arrazoia Usuaren iritziz. *“Ene, nolako oroitzenak”*, esaten diotela azaldu digu. *“Polita da hori ikustea”*, aitortzen du sortzaileak.

Sormenaren bila

‘Sormenaren sustraiak’ proiektuan eredu moduan erabili dituen adibideak bezala, Usuak ere sormenaren bidea jarraitu du bere bizitzan. Farmazia ikasketak egin eta botikan egin du lan hainbat urtetan, *“baina sormena behar nuen eta horren bila joateko utzi nuen”*. Joan den urteko abenduan eskegi zuen amantal zuria eta narrua du orain esku artean.

Beti izan du eskulanak egiteko zaletasuna, *“baina denbora-pasa moduan”*, orain dela bi urte Bartzelonan zapatak egiteko ikastaroa egin arte. *“Narrua ezagutu nuen han, gustatu zitzaidan eta*

hor hasi nuen nire bidea”. ‘Eskusutxo’ marka sortu zuen 2015ean sormenari itxura emateko asmoarekin, eta dagoeneko hasi da barrenean zeukan sormena irudikatzen eta bere produktuetan islatzen.

Etxean egiten du lan eta, azpiegitura faltak momentuz zapatak egiten ez badio lagatzen ere, *“poliki-poliki”* aurrera egingo duela dio. Urrian ‘pop up’ denda jarri zuen Zuloagarren kalean, egun gutxitan zabaltzen den saltokia, eta horrelako gehiago egiteko asmoa badu ere, interneten du denda iraunkorra (www.etsy.com/shop/Eskusutxodesign). Facebook eta Instagramen (@eskusutxo) ere ikusgai ditu bere sorkuntzak, eta informazio gehiago jaso nahi izanez gero eskusutxo@gmail.com helbidera idatzi edo 676 792 144 telefonora deitu ahal diozue.

Eskubaloian neskek asteburu oparoagoa izan zuten mutilek baino

Senior mailako Avia Eibar Eskubaloiak 31-21 irabazi zion Oskarbi Optika Legazpiri Ipuruan Euskal Ligako partiduan eta jubenil mailako taldeak 23-17 Aialari, azken horrek ere etxean jokaturako partiduan. Gizonezkoen taldeak, bestalde, galtzaile izan genituen: senior mailako biek kanpoan jokaturako partiduetan Somos Eibarrek erraz galdu zuen Zaragozan hango Dominicosen aurka (37-20) 1. Nazional mailako lehian, eta Haritza senior mailako bigarren taldeak 36-31 galdu zuen Legazpiko Lau Bide Jatetxearekin Gipuzkoako 1. Mailako neurketan. Mutilen jubenil mailako taldea ere galtzaile izan



zen, hau gainera Ipuruan: Tekniker Eibar Eskubaloia, 25; Mondragon Lingua Aloña Mendi, 29. Kadeteetan, bestalde, alderantzizkoa gertatu zen: mutilen talde biak garaile izan ziren bitartean, nesken talde biek galdu egin zituzten euren partiduetan.



Urbat waterpolo alebin mailako taldea.

Urbat waterpoloko taldeak erraz nagusitu ziren azken jardunaldiko partiduetan

Euskal Herriko Ligaren 1. Mailan jokatzeko duten klubeko lehen bi taldeak markagailu ezin argiagoak lortu zituzten euren partiduetan: gizonezkoen taldeak 21-5 irabazi zion Getxori eta emakumezkoenak 24-1 Castellae Burgosi. Bizkaitarrak azkenak dira sailkapenean eta hori ondo igarri zen Orbean jokaturako neurketan. Zailagoak izango dira gizonezkoen taldeak izango dituen hurrengo bi erronkak, lehenengoa Portugaleten Nauticaren aurka eta bigarrena etxean Askartza B jasotzean. Hala ere, Carchiren mutilek bikain dihardute, sei partidutan 13 puntu eskuratuta. Urbat 3H emakumezkoen taldeak, bestalde, ondo aprobeztatu zuen aurkariak zituzten bajak eta orain, lau partidutan lau puntu lortuta, gora begira jar daitezke.

Kadete mailako talde mistoak ondo erakutsi zuen ez duela gutxiago izan nahi eta garaipen argia (8-22) lortu zuen erraztasunik eskaintzen ez duen Lautadaren igerilekuan. Infantil mailakoek partidu zailagoa zuten aurrean eta 19-6 galdu zuten Askartza-Claretekin Getxon.

Emakumezkoen foball taldeak goiko postuetan

2. Maila Nazionalean jokatzeko duen talde nagusiak 2-0 irabazi zion Zarautzi azken jardunaldian eta, Athletic-ek Logroño liderrarekin galdu zuenez, bakarrik geratu da sailkapeneko bigarren postuan. Lurralde mailan jokatzeko duen bigarren taldeak, bestalde, husna berdindu zuen Txerloian Anaitasunarekin eta Azpeitiko taldea eta Eibarkoa berdinduta jarraitzen dute lidergoan.



Zure enpresa erakusteko
LEKU APARTA
GIDA
KOMERTZIALA 2018

Eibarko ETXE GUZTIETAN eta herriko komertzio, enpresa, bulego, ikastetxe, osasun-zentro... guztietan banatzen da

eta
kitto!
Astekaria

publizitatea@etakitto.eus
943 20 67 76
www.etakitto.eus

www.kolorlan.com 667 54 89 16

KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L

2.000 euroko
Gabonetako OTARRA

Gabonetako OTARRA
2.000 €ko
balioa duen Otarra
(1.500€ produktuetan eta 500€ko erosketarekin)

Zukate 2017ko abenduaren 13an egingo da
Prezioa: 1€
Zbk:

eta
kitto!
Astekaria

Euskara Elkarteak

Gaur eta bihar kalean erosteko aukera
Gaur (19:00-21:00) Bihar (13:00-14:00)

SALMENTA LEKUAK:
El Corte Ingles, ...eta kitto!, Isasi okindegia, Mujika eta Otegui harategiak, Echeto eta Arriola prentsa, Maria Ospitxal (Calbeton), Bolintxo, AEK eta Udal Euskaltegia, Izadi loradenda, Lamia ileapaindegia eta Kultu

eta
kitto!
Astekaria

Euskara Elkarteak

122 eibartarrek amaitu zuten aurreko domekako Behobia-Donostia

laz baino 13 ordezkari gutxiago izan zituen Eibarrek Behobia-Donostia maratoi erdiaren 53. edizioaren helmugan. Guztira 122 atletek osatu zuten gure herriaren ordezkariak, eurentako 27 emakumeak. Aitziber Urkiola izan zen lehena azken horien artean eta Txomin Osoro ordezkari onena gizonetzkoetan. Bestalde, Naia Saezek bigarren postua lortu zuen Behobia Gaztean (hirugarren aldia da postu bera lortzen duena). Eguraldi aproposa

izan zuten antxintxiketan egiteko eta, parte hartzeko izena emanda zuten 30.912 lagunetik, 25.486 izan ziren azkenean lasterketan irtetzera animatu zirenak. Horietako 24.510 lasterkari iritsi ziren helmugara. Carles Castillejo kataluniarrak bere hirugarren txapela eskuratu zuen, 1:00:39 denborarekin. Emakumezkoetan, bestalde, Aroa Merino izan zen irabazlea (1:11:05). Jarraian dituzue eibartarrek lortutako postu eta denbora guztiak:



Antxintxiketan egiteko eguraldi aproposa egin zuten.

171	Txomin Osoro	1h13'33"	4891	Roberto Fernandez	1h33'18"	11220	Urko Larrañaga	1h44'12"	16153	Aintzane Aristi	1h52'30"
218	Igor Atxa	1h14'25"	5116	Ibon Ramirez	1h33'47"	11331	Ibon Martin	1h44'23"	16329	Mikel Telleria	1h52'47"
404	Kepa Varela	1h16'52"	5197	Jokin Alonso	1h33'57"	11428	Alexander Sarasua	1h44'32"	16804	Ignacio Vicuña	1h53'40"
549	Jon Zubia	1h18'25"	5822	Idoia Izagirre	1h35'18"	11481	Asier Paredes	1h44'37"	16867	Paula Pereira	1h53'48"
581	Pello Berrizbeitia	1h18'38"	5900	Enrique Salgado	1h35'28"	11548	Ibon Romero	1h44'42"	17124	Asier Etxaniz	1h54'18"
593	Iker Aranzibia	1h18'44"	6274	Eneko Diaz	1h35'11"	11624	Paul Unamuno	1h44'48"	17160	Kristina Zabala	1h54'23"
698	Andoni Mayo	1h19'23"	6352	Ane Ziaran	1h36'18"	11639	Izaskun Aizpuri	1h44'49"	17767	Nerea Ziaran	1h55'34"
701	Aitor Bolinaga	1h19'23"	7379	Ibon Arizaga	1h38'04"	11748	Jon Perez	1h44'59"	17768	Ainhoa Ugarte	1h55'34"
818	Jon Illarramendi	1h20'08"	7452	Ariane Zubia	1h38'12"	11759	Imanol Elkoro berezibar	1h45'00"	17770	Maidor Otaola	1h55'34"
875	Aimar Arakistain	1h20'34"	7454	Javier Varona	1h38'12"	11769	Oier Berrizbeitia	1h45'00"	17878	Agus Azpuri	1h55'45"
1049	Xabier Arrieta	1h21'42"	7977	Ibon Vega	1h39'02"	12491	Daniel Loidi	1h46'19"	18067	Joakin Egja	1h56'04"
1087	Enrique Guruzeta	1h21'54"	7982	Kristina Lopez	1h39'02"	12602	Jon Mardaras	1h46'31"	18847	Iñigo Guruzeta	1h57'36"
1148	Igor Gomez	1h22'12"	8066	Eneko Urain	1h39'09"	12735	Txomin Aizpurua	1h46'45"	19251	Carlos Balseiro	1h58'29"
1402	Francisco Guruzeta	1h23'28"	8211	Xabi Perez	1h39'22"	12813	Xabier Azkune	1h46'53"	19412	Felipe Sanchez	1h58'47"
1503	Aitziber Urkiola	1h23'56"	9082	Julio Anton	1h40'41"	13017	Iñigo Argoitia	1h47'12"	19774	Eneko Eizagirre	1h59'34"
1534	Aitor Oiarzabal	1h24'03"	9713	Borja Etxebarria	1h41'40"	13714	Alberto Saenz de Viteri	1h48'14"	20318	Aitor Muguza	2h01'04"
1728	Liher Prieto	1h24'47"	9861	Jone Saez	1h41'53"	13717	Alexander Telleria	1h48'15"	20722	Juan Galarza	2h02'21"
1744	Raul Fernandez	1h24'53"	9950	Asier Arana	1h42'03"	13913	Jesus Francisco Pagei	1h48'35"	20988	Sebastian Lobato	2h03'07"
2000	Eneko Azurmendi	1h25'52"	10082	Bittor Ugarteburu	1h42'17"	14539	Ina Telleria	1h49'34"	20990	Iker Lasuen	2h03'07"
2624	Juanjo Romero	1h27'56"	10233	Jaime Mendiguren	1h42'33"	14923	Humberto Sarasua	1h50'17"	21594	Mikel Miguclena	2h05'16"
2640	Jonatan Alustiza	1h27'59"	10253	Raul Miguel	1h42'34"	14969	Borja Guerrero	1h50'22"	21937	Itziar Rodriguez	2h06'35"
2643	Eduardo Uribe	1h27'59"	10325	Miguel Fernandez	1h42'41"	15103	David Riaño	1h50'37"	21943	Jose Angel Diaz	2h06'36"
2804	Fernando Malpeceres	1h28'24"	10420	Arantza Bujedo	1h42'52"	15657	Roberto Gallego	1h51'36"	22090	Ander De Diego	2h07'10"
3228	Fidel Gonzalez	1h29'24"	10499	Marina Kruzelaegi	1h43'00"	15774	Ainhoa Larrauri	1h51'50"	22102	Ainhoa San Martin	2h07'13"
3325	Gorka Gallastegi	1h29'36"	10544	Maialen Zubizarreta	1h43'04"	15822	Susana Agirregomezkorta	1h51'54"	22357	Luis De Blas	2h08'30"
3483	Miren Gallastegi	1h29'58"	10977	Eduardo Alvarez	1h43'49"	15837	Larrait Carracedo	1h51'57"	22766	Laura Ferreño	2h10'34"
4142	Ibai Lazkano	1h31'33"	10986	Jon Etxabe	1h43'50"	15843	Igor Olañeta	1h51'57"	23079	Yago Del Campo	2h12'18"
4207	Jorge Rubio	1h31'42"	10992	Ernesto Etxabe	1h43'50"	15882	Susana Etxebarria	1h52'01"	23942	Leire Bergara	2h21'52"
4524	Ion Zubiate	1h32'30"	11106	Amaia Abanzabalegi	1h44'02"	15932	Lourdes Iriarte	1h52'06"	23959	Aitor Muguza	2h22'01"
4548	Juan Luis Azkune	1h32'34"	11108	Oscar Saez	1h44'02"	16112	Lourdes Murgoitio	1h52'26"			
4843	Jokin Martinez	1h33'10"	11171	Eduardo Kapelastegi	1h44'06"	16120	Xabier Garcia	1h52'27"			

Galduta ere, bi puntu eskuratu zituen Eibar Rugby Taldeak A Coruña

Er hori bakarrik, partidua amaitzeko segundo batzuk besterik falta ez zirenean ikusle guztiak mutu lagatzeko gauza ere izan zirelako. Zigor-kolpea alde izan zuen Eibarko taldeak une horretan, baina zutoinetik 40 metrora emandako ostikada ez zen bi zutoi-



Doha, Amairu, Ilvy eta Asmae jokalariek, Alhambra Nievasekin.

nen artean sartu. Horri esker CRAT nagusitu zen 29-28, baina hala ere eibartarrek ez ziren esku hutsik bueltatu eta bi puntu bereganatu zituzten. Atsedenaldira 19-14 galtzen erretiratu ziren Avia Eibar Rugbykoak.

Epaila ikastaroak

Bestalde, aurreko martitzenean hasita, Igotz Gallastegik gidatutako hiru saio lotu ditu klubak Gipuzkoako Federazioarekin elkarlanean eta bertan 13 gaztek eman dute izena, 10, 12 eta 14 urtetik beherakoentzako partidua zuzendu ahal izateko. Horrez gain, aurreko zapatuan Alhambra Nievas mundu mailan ezagutzen den epaila (World Rugby nazioarteko Federazioak urteko epaila izendatu zuen iaz) emakumezkoentzako 1. mailako epaila ikastaroa eskaini zuen. Bigarren aldia da gurera etorri dela eta bere irakasken jarraitu zituzten taldeko lau jokalariek.

Eibar FT-ko akziodunen ohiko batzarra abenduaren 13an

Coliseoan egun horretako arratsaldeko 19:30ean egingo den **batzar horretan** Eibar FTko Administrazio Kontseiluak 45'3 milioi euroko aurrekontua aurkeztuko du 2017-18 denboraldirako, eta 15'2 milioiko superabita aurreikusten dute zergak alde batera lagata. Ekainaren 30ean itxi zen 2016-17 denboraldiak, bestalde, 12'4 milioi euroko emaitza positiboa eman zuen. Estatutuen aldaketak ere izango dira eguneko gai-ordenean. Azken esparru horrek batzarra luzatuko dela diote klubeko agintariek eta, hori dela-eta, batzarra baino lehenago beste bilera bat egiteko asmoa dute interesa duten akziodun guztiakin.

Japonian kudeaketa eredia erakusten

Eibar FT Javier Tebas La Ligako presidentearekin eta Cervantes Instituarekin izan da Japonian astebete eta, han egindako ekitaldietan, Patricia Rodriguez Eibar FTko zuzendari nagusiak klubaren negozio-eredua eta eramandako nazioarteko estrategia azaldu zituen. Bestalde, Espainiako Merkatal Ganbarak Japonian duen egoitzan bertako merkaturak klubak izan duen gorakada azpimarratu zuen.



Unamuno, Ulazia eta Rodriguez herenegungo prentsaurrekoan.

Betis eta Alaves aurkari datorren astean

Eibar FT-ko lehen taldea urte amaierari begira fase erabakigarrian sartuko da, puntuak irabazi eta sailkapenean gora egiteko aurkari zuzenen kontra jokatu baitu. Asteburuko jardunaldia amaitzen azkenak izango dira eibartarrak (Betis hartuko dute lpu-ruan astelehenean, hilaren 20an, 21:00etan) eta hurrengoak hasten lehenengoak (Gasteizen jokatu dute, Alavesen kontra, zapatu eguerdian). Hilaren 25ean, 13:00etan, jokatu den partidu horretarako Alavesek 387 sarrera bidali dizkio Eibar FT-ri, 25 eurotan, eta dagoeneko salgai daude.

Udazkentrail 17 egin zuen aurreko zapatuan Kalamua Korrikalari taldeak



Eibarko Klub Deportiboko trail taldeak antolatuta, aurtengo hirugarren trail irteera egin zuen 15 bat lagun ez osatutako taldeak. 17 kilometroko ibilbidean, 675 metroko goranzko desnibela gainditu zuten: Eibartik irten eta Ibur-Errekatik Karabietara igo zuten, ondoren Elgetako Larrabiltzarra gainari buelta eman eta, berriro Karabietatik, Azkonabietatik atzetik Azurtzara jaisi eta, Unbetik, Eibarrera jais-

teko. Eguraldi aproposagoa izan bazezaketen, pozik daude Negutrail, Udaberritrail eta Udazkentrailek emandako emaitzekin eta, arrakastatsu izan direla ikusita, datorren urteko Deporreko irteeren egutegian txertatzea erabaki dute. Hurrengo irteera Gabontraila izango da, abenduaren 24an Deportibo aurretik 08:30ean abiatuko dutena. Korrikalari taldekoek animatu nahi zaituzte bertan parte hartzera!

Hiru taldek agintzen dute foball-zaletuan

Ipur Sagardotegia, Bar Txoko eta Azkena Adahi dira, partidurik galdu gabe geratzen diren bakarrak izateaz gain, sailkapeneko lehen hiru postuetan daudenak. Aurreko asteburuan jokatuak 8. jardunaldian ere hirurak nagusitu ziren: Ipur 6-0 gailendu zitzaion Bar Aretori eta beste biak estuago ibili ziren aurkarietara irabazteko (Txokok 1-0 Slow XOK-i eta Azkenak Adahik 2-1 Reformas Hiruri). Asteburu honean Alkideba-Azkena Adahi izango da partidu interesgarriena (bihar, 09:00etan).



Radio Eibar
 CADENA
SER
 104,0 FM

Izadi
 LORADENDA
 - Lora eta landare natural eta lehorrak
 - Ezkontzetarako lorak
 San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

EIBARKO KLUB DEPORTIBOAK
ATEZAIN-TABERNARI EUSKALDUNA BEHAR DU
astelehenetik ostiralera
 Interesatuak info@deporeibar.com helbidera idatzi



osasun DOSIAK



iñaki elortza
BOTIKARIA

Gosaria, eguneko otordurik garrantzitsuen

Ba ez, ez da horrela. Milaka aldiz entzungo genuen gure bizitzan esaldi hori, eta guztiz barneratua izango dugu bai, baina ez da egia. Orain esango didazu elikaduraren munduan inoiz ez dagoela asmatzerik. Oliba olio lehena txarra zela, orain aldiz onena; arrain urdina kaltegarria zela, eta orain osasuntsua; esnea orain dela gutxira arte ezinbestekoa zela, eta orain batzuen esanetan ia pozoia; ogiak asko gizentzen zuela, gero ezetz, eta gero berriro baietz... etab. Arrazoi duzu, ez dago asmatzerik.

Honen errudunak neurri handi batean gu gara, edonoren hitzei kasu egiten diegularako, baina erantzukizun handiena elikagai-industriarena da, nahi duen ideia gure buruan sartzeko gaitasun handia baitauka. Alde batetik publizitateaz baliatuz eta beste alde

batetik ikerketa zientifikoak babestuz eta hauen emaitzetan eraginez.

Eta hemen hasierara bueltatzen gara, norik sinestarazi digu gosaria eguneko otordurik garrantzitsuen delako? Elikagai-industriak. Zer dio zientziak honen inguruan? Gosaria ez da otordurik garrantzitsuen, gosaltzea ez da ezinbestekoa eta ez dago gosari idealik.

Dena dela ideia bat argi utzi nahi dizut, gosaria otordurik garrantzitsuen izango balitz ere, guk eguneko otordurik kaltegarriena bihurtzen dugu gehienetan. Zergatik? Industriak "gosarirako bereziki" diseinatu dituen elikagaiak jaten ditugulako, eta hor ez dagoelako aukera osasuntsurik. Kakaoa, gailetak, zukuak, "gosarirako" zerealak... denak azukre pila batekin, gantz kaltegarriekin, irin finduekin... a ze kontraesana.

Azaroak 25: Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna


Azaroaren 25a emakumeen aurkako indarkeria salatzen eta horren inguruan sentsibilizatzen mundu mailako eguna da; herrialde guztietan inkarkeria hau ezabatzeko politikak erreklamatu behar direla gogoratzeko eguna. 1999an Nazio Batuetako Asanblada Orokorra azaroaren 25a izendatu zuen Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako egunerako.

Zergatik aukeratu zen egun hori? Konbokatoriari 1981an Latinoamerikako mugimendu feministak ekin zion, Dominikar Errepublikan *Mariposas* bezala ezagunak ziren Patria, Minerva eta María Teresa Miranal ahizpak erahil zituzten data gogoratzeko. Rafael Leónidas Trujilloren diktaduraren kontra aritzeagatik bortizki erahil zituzten 1960an.

1993an Nazio Batuetako Asanblada Orokorra Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako deklarazioa onartu zuen. Adierazpen horretan modu honetan definitu zen emakumeen kontrako indarkeriaren terminoa:

Lehen artikulua.- "Emakumeen kontrako indarkeria" bezala ulertzen dira, emakume izateagatik, kalte edo sufrimendu fisiko,

arantza alvarez
SEXOLOGOA



sexual edo psikologikoa eragin ditzaketen indarkeria-ekintza guztiak; baita ekintza horien mehatxuak, koakzioa edo bidegabeko askatasun ukatzea, bizitza publikoan zein pribatuan gertatzen badira.

Bigarren artikulua.- Emakumeen aurkako indarkeriak ondorengo ekintzak ditu bere baitan, nahiz eta hauek bakarrak ez izan: – Familiaren barruan gerta daitekeen inkarkeria fisiko, sexual eta psikologikoa, eta horien barne tratu txarrak; etxe barruan gertatzen diren nesken abusu sexualak; ezkonsariarekin loturako indarkeria; senarrak egindako bortxaketa; emakumeen genitalen mutilazioa eta emakumeentzako kaltegarriak diren beste jardura tradizionalak; familiako beste kideek egindako bortizkeria ekintzak; eta esplotazioarekin loturako indarkeria.

– Komunitatearen barruan orokorrean egindako bortizkeria fisiko, sexual eta psikologikoa, eta horren barne bortxaketa; abusu sexuala; akosoa eta intimidazio sexuala lan-esparruan, hezkuntza-erakundeetan eta beste lekuetan; emakumeen salerosketa eta behartutako prostituzioa.

– Estatuak egindako edo toleratutako biolentzia fisiko, sexual edo psikologikoa, edonon gertatzen dela ere.

INFORMAZIO GEHIAGO:

www.emakunde.euskadi.eus/violencia-/violencia/





Jendez beteta egon ziren Pirritx, Porrotx eta Marimototsek Unibertsitate Laboralean eskainitako lau saioak. "Borobilean" izeneko ikuskizun berriak, Eibarren izan zen estreinaldia gainera, bi mila ikusletik gora elkartu zituen zapatu eta domekako saioetan, eta haur zein heldu, tente eta dantzan jarri zituzten pailazoek. ...eta kitto! Euskara Elkartearen zoriontzeko tartearen ere izan zen, "zorionak zuri" abestiaren doinuarekin taula gainera igo ziren Elkarteko ordezkariak, aurten betetzen duten **25. urtemuga** ospatzeko. Lerro hauen bitartez, ...eta kitto!-k eskerrak eman nahi dizkie Unibertsitateari eta El Tio Palancas, Gozoki eta Denetik dendei pailazoaren ikuskizuna antolatzeko eskainitako laguntasunarengatik.

argazkiak: Maialen Belaustegi

"Borobilean" ikuskizun arrakastatsua





MIREIA GABILONDO
(aktorea)

– *‘Muxua’ antzeulanak bi urte daramatza oholtzan, arrakasta izan duen seinale. Hala ere, bertan azaltzen den arazoa gizarteratzen jarraitu beharra dago?*

Hori da penagarriena, baina horregatik egin genuen antzezlana. Eskolentzako saio asko egiten ari gara ‘Gehitu’-koekin elkarlanean, eta horren bitartez gazte asko etortzen da institutuetatik. Gero, mahai-inguruak egiten ditugunean, nahiz eta momentuan euren burura galderarik ez etorri, bakoitzak bere etxera eramaten du antzezlanean tratatzen dugun gaia.

– *Antzezlana Ivan Controneoren eleberrin batean oinarritzen da eta, era berean, berak Amerikako Estatu Batuetan (AEB) izandako gertakari bat du oinarri. Zein da?*

Oso liburuxka txikia da. Controneoren eleberrian Istorio bera hiru ikuspuntutik kontatzen da. Bi mutilen istorioa da eta ni euren literatura irakaslea naiz. Bata (Lorenzo) herri txiki ba-

“Eskerrak ez daukagula armarik eskura AEB-n bezala”

Lorenzo eta Antonioren arteko istorioa dakarkigu Ttanttakak. Euren artean dago Elena, literatura irakaslea, mutil bien arteko erlazioaren lekuko; eta denaren gainetik, musu bat. Mireia Gabilondo jarriko da Elenaren azalean **hilaren 23an** Coliseoan 12:00etan (euskaraz, DBHko ikasleentzat) eta 20:30ean (gaztekeraz) eskainiko den ‘Muxua’ antzezlanean. Fernando Bernues zuzendariaren lanaren nondik norakoak kontatu dizkigu Bergarako aktoreak.

tera etortzen da bizitzera, adoptatua da eta familia batetik bestera ibili da. Institutura helterakoan beste gaztearekin (Antonio) maitemintzen da, eta garbi ikusten ditu bere sentimenduak zeintzuk diren eta ez dauka beldurrik adierazteko. Beste mutila, hori ikusita, minduta eta irainduta sentitzen da, eta besteek esango dutenari eta gertatuko denari beldurra dio. Eskopeta bat dauka etxean eta Lorenzo hiltzen du eskolan. Hori AEBn gertatu zen. Askotan gertatzen dira horrelakoak; edo gutxi, hainbeste kasu entzunda. Eskerrak ez daukagula armarik eskura AEBn bezala. Hiltzera iritsi aurretik ere, uste dut egoera latzak bizi direla min hartu eta emate horretan.

– *Nolako indarra izan dezake muxu batek?*

Handia eta, kasu honetan, txarrerako. Muxua berba entzutean istorio erromantikoan pentsatzen dugu normalean, baina hala izanik ere, une batean Lorenzok muxua ematen dio

Antonioren eta muxu horretan zerbait sentitzen du barrenean Antoniok. Azken honek ezin du onartu, eta hori da amaiera tragiko horretara iristeko eragilea.

– *Antzeulanak berean jarraitu du bi urteotan edo moduren batean eboluzionatu du?*

Hainbeste emanaldiren ondoren aktoreek izaten dugun eboluzio normala izan du. Ikuskizuna lasaitu edo handitzeko balio izan digu horrek. Jende gutxiarentzat egiteko antzezlana bezala sortu zen, Victoria Eugenia 50 lagunentzat aritzeko. Baina areto handietan ere aritu gara; Gasteizen, adibidez, 1.000 gazteentzako egin genuen. Hori pasata, handitu egiten zara edo betirako txikitu. Publiko ezberdinentzat aritzen ohitu gara eta gustora gaude. Gauza txikia izanik, pentsatzen genuen areto txikietan arituko ginela bakarrik eta emanaldi gutxi eskainiko genituela, baina 70 inguru eman ditugu eta asko dira.



Film labur onenei sariak banatu zituzten Coliseoan

Zapatu iluntzean banatu zituzten Coliseo antzokian Asier Errasti 18. film laburren jaialdiko Javier Agirresarobe sariak: Rodrigo Sorogoyenen “Madre” lanak eskuratu zuen sari nagusia (lantaldearen izenean Tamara Santosek jaso zuen saria) eta bigarrena Luis Jimenez Barrosoren “Mujer y filipina” laburmetraiarentzat izan zen. Euskerazko fikzioan, saria “Kreba”, Oier Fuentes Mendizabalek zuzendutako lanak eraman zuen, animazioan lan saritua Marc Riba eta Anna Solanasek zuzendutako “Cavalls morts” izan zen eta Eibarko onenari saria, berriz, Koldo Edorta Carranzaren “Ilunpetan” film laburrak jaso zuen.

Ikuskizun bikoitza ekarriko digu Katapulta Tour zirkuituak

Katapulta Tour Gipuzkoa 2017 ekimenaren barruan, “Berriz Topatzean” antzezlana eskainiko dute Amaia Arriaran eta Nerea Ariznabarreta antzezleek domekan, 12:00etatik aurrera, Biharran sormen espazioan (Ubitxa, 16-18). Eduardo Viladesek idatzitako antzeulanak El Sekaderok bere inauguraziorako antolatzen zuten testu lehiaketan bigarren saria eman zion egileari eta han estreinatu zuten 2015eko irailean. Euskarazkoa urte-

bete geroago Getxon aurkeztu zuten. Imanol Espinazok zuzentzen duen lan honetan aspaldiko bi lagunek ustekabea bat egiten dute dentistatik irtetzean. Askok dute elkarri esateko eta are gehiago ezkutatzeke. Izan ere, Anparok 11 urte daramatza azpilanean, mendekua hartzeko. Horrekin batera, Amagoia Lauzirikak “KITTO, yo lo dejo” umorezko bakarriketa eskainiko du. Biak euskeraz egingo dituzte eta sarrera doan izango da.





“Jon Braun” euskerazko antzezlan Anita Maravillas konpainiarekin

Bihar arratsaldean, 17:00etan hasiko da Coliseo antzokian “Jon Braun”, 3 urtetik gorako umeentzat bereziki pentsatutako antzezlan. Anita Maravillas konpainiaren euskerazko lan honetan, Miren Larrea eta Valentina Raposo antzezleen eskutik txotxongiloek bizia hartuko dute, Ivan Alonsoren zuzendaritzapean. Kontatuko duten istorioko protagonista Jon Braun, beti ilusioz aurrera egiten duen indio txikia da. Sarrerak 5 euro balio du.



Arrakasta handiarekin estreinatu da “Alizia musikala” ikuskizuna

Aurreko asteburuan estreinatu zuten Bergaran “Alizia musikala... lurralde miresgarrian badago Wifia”, Lewis Carroll-en “Alice in the Wonderland” lana oinarri hartuta Bergarako Musika Eskolak sortu duen ikuskizuna. Ordu bi inguru dirauen musikal berriari 100 artistak hartzen dute parte eta zapatu zein domekan Bergarako frontoian eskainitako emanaldiak 1.800 lagunek ikusi zuten. Jose Miguel Laskurain eibartarra ikuskizunean parte hartzen duen orkestrarako musikarekin arduratu da. Orkestra Bergarako Musika Eskolako ikasle eta irakasleek, 22 musikaririk osatzen dute eta ikuskizunean Laskurainek zuzentzen ditu.



Sendabelarrei buruzko tailerrerako izen-ematea ...eta kitto!-n

Datorren azaroaren 27 eta 28an Mentxu Amunategi bermeotarrak sendabelarrei buruzko tailerra eskainiko du ...eta kitto! Euskara Elkarrearen lokaletan. Izena emateko telefonoz deitu (943200918) edo emaila idatzi (elkarte@etakitto.eus) daiteke. Tailerrak 6 euro balio du eta izena ematen duenari saio bietara joateko konpromisoa eskatzen zaio. Gure inguruan hazten diren lore eta landareen ezaugarriak ikasteaz gain, ikasitakoa praktikan jartzeko aukera izango dute parte-hartzaileek.



“Sugar Daddy and The Cereal Killers”

Domekan kontzertua emango du “Sugar Daddy and The Cereal Killers” taldeak Portalean, 19:30ean. Sugar Daddy gaitzizenarekin ezagutzen den Simone Caputoren eraginez eratutako taldean Francis Needham eta Roberto Boldi ditu laguntzaile baterian eta baxuan. Haize-instrumentuekin diharduten Luigi Napolitano, Roberto Dibitonto eta Cosimo Pignataro musikariek eta Alessio Pamovio pianista trebeak biribiltzen dute taldearen soinua. Sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).

Santa Zeziliaren omenezko saioak

Urtero egiten den moduan, zapatu gauerdian Untzagatik abiatuko dira Eibarko Cielito Musika Bandako musikariak, Santa Zeziliaren omenezko kalejiran. Eta domekan, berriz, kontzertua emango dute Coliseo antzokian, 12:30ean, Isabel Laspiur pianojoleak lagunduta. Carlos Sanchez-Barbak zuzenduko duen emanaldian “Lliria” (pasodoblea, JM Martin Domingo), “Pilatus: Mountains of Dragons” (poema sinfonikoa, S. Reineke), “La taberna del Puerto” (fantasia, P. Sorozabal), “Danzon n°2” (dantza, A. Marquez) eta “Pops in the Spots” (aukeraketa, R. Kerner) eskainiko dituzte. Juan Bautista Gisasola Musika Eskolakoak, berriz, eguaztenean, Santa Zezilia egunean irtengo dira kalejiran, 17:00etan.



Amagandiko edoskitzearen argazkiak

Debabarrena ESIk iaz antolatu zuen amagandiko edoskitzearen inguruko argazki lehiaketak eskualdeko gurasoen aldetik oso harrera ona izan zuela ikusita, aurten berriro egitera animatu dira eta lanak aurkezteko epea luzatu dute, azaroaren 20ra arte. Lehiaketan parte hartzeko argibideak erakundeko web orrian dago eskuragarri dago (www.osakidetza.euskadi.eus), Debabarrena ESIn eskainitako atalean, baita Facebook-en ere.



JON MIKEL MUJIKA

Puntuak puntu

“Garaian garaikoa” dio esaerak eta hala bizi dugu denok urte sasoi hau, baina bakoitzak bere erara. Ehiztariak zerura begira dabilta, perretxiko zaleak lurrera eta bertsozaleok oholtzara.

Txapelketa garaian gaude, lau urtean behingo hitzaren olimpiada ari da ospatzen. Irailean hasi ziren lurralde bakoitzeko bertsolari onenak Euskal Herriko herri eta hirietan zehar lehian. Eta dagoeneko iritsi dira finalerdietako bigarren itzulira.

Bertsozaleok (frikienok behintzat), bertso saio dezente ikusten ditugu urtean zehar, bertso ugari entzuten dugu irratan, telebistan edo internet bidez. Baina Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusian bertso saio arruntetan ematen ez diren beste faktore batzuk hartzen dute parte: tentsioa, emozioa, morboa.

Bertsozaleon zentzumen guztiak zorrotzen ditu txapelketak, ez digu potto batek ere ihes egiten eta bertso asko betirako iltzatzen zaizkigu buruetan. “Batzutan da argia / bestetan iluna ...”, “... han sartu naiz toreroa / zezen-plazara bezela ...”, “... ejem ...”, “... baina hemengoak azalez eta / hitzez zuriak direnez...” eta beste hamaika bertso gehitu ditu txapelketak gure memoriari.

Aurtengoan erne dira ale batzuk dagoeneko eta oraindik Amurrio, Donibane Lohizune, Iruñea eta, nola ez, BECecko saioak geratzen dira. Egin tokia zuen buruetan, handia dator eta.

Guinness errekorren agiri ofiziala ipini du alkateak udaletxeko patioan

Ekainaren 22an Eibarren AKEBAI plataformak antolatutako ekimenean, 2.500 eibartarron artean irudi erraldoia osatu genuen Untzaga plazan “Largest Transforming Human Image” errekorra gainditzeko asmoz eta denon artean lortu genuen. Oporretatik bueltan, irailean jakin genuen Guinness World Recordsek ere, eskatzen zituen ebidentziak (argazkiak, filmazioak, lekukoek deklarazioak, kronometratzaileen deklarazioak...) aztertu eta gero, gure Largest Transforming Human Image errekor saiakera ontzat eman zuela eta ofizialiki Eibar Guinness marka horren jabe zela. Hala ere, hori ziurtatzen duen agiria noiz bidaliko ziguten zain egon gara eta azkenean ailegatu da! Eguaztenean Miguel de los Toyos alkateak udaletxeko patioan denok ikusteko moduan ipini du, Jose Mari Ulazia, Malen Illarramendi, Idoia Argoitia eta Ekhi Belar AKEBAI-ko kideen laguntzarekin.



Zorionak hori lortzen lagundu zenuten eibartar guztioi eta eskerrik asko!

Bertso Paper lehiaketak baditu irabazleak

16 urtetik gorakoek mailan Jesus Mari Gisasola “Trunboi” izan da aurtengo San Andres Bertso Paper lehiaketako irabazlea. Donostian bizi den eibartarrak 300 euro eta txapela jasoko ditu. Bigarren saritua ere ezaguna dugu Eibarren, ez baita saria jasotzen duen lehenengo aldia. Oretako Iñigo Legorbururi 250 euroko saria eta plaka emango dizkio ...eta kitto! Euskara Elkartek. Gazteen mailari dagokionez, Eneko Osorok jantziko du txapela eta bigarren saria, berriz, Pe-




ru Alberdik eramango du etxera. Irabazleek datorren barixakuan, azaroak, 24, Portaleko areto nagusian egingo den bertso-saioan jasoko dituzte sariak arratsaldeko 18:30ean, eta 19:00etatik aurrera Alaia Martin, Andoni Egaña, Miren Amuriza eta Sustrai Colina bertsolariek jardungo dute Jon Mikel Mugikaren agindupean. Sarre-rak salgai daude 6 eurotan, Sagar Bitza, Kultu eta Guridin, eta jaialdiaren egunean ere Portalean bertan salduko dira.

Gaur bete-betean sartuko gara Bakailao Astean

Udalak antolatu duen Bakailao Astearen harira eta Mireia Alonso gastronomoaren ekimenez, gaur 19:30ean hitzaldia emango du Xabier Alberdi historialariak Portalean. Albaolako ikerkuntza gu-neko arduradunak lan handia egin du euskaldunok itsasoarekin dugun lotura historikoa aztertzen, eta gaurko saioan bakailaoarekin dugun harremanari buruzko azalpenak emango ditu.

Bihar, berriz, maila handiko sukaldariak lanean zuzenean ikusteko aukera aparta izango da, eguerdian udaletxeko patioak hartuko duen ‘Alcorta bakailaoak’ I. Pintxo Lehiaketan. Hego Euskal Herriko lau probintzietako pintxo txapeldunekin batera Eibar, Ermua eta Elgoibarko irabazleekin jardungo dute. Epailak, berriz, Belaustegi ja-

tetxeko Josu Muguerza, Mireia Alonso, Ramon Roteta sukaldaria, Lobiano elkarteko Jesus Portugal eta Josema Azpeitia eta Aitor Buendia gastronomia-kazetariak izango dira. Eta domekan, 12:00etatik aurrera, Eibarko Bakillauaren Kofradiak urtero antolatzen duen XIV. Eskolarteko Bakailao Lehiaketa jokatu da Untzagan.



Xabier Alberdi historialaria.




Gari & Mandalbera gaur ERMUAN

Gaur gauean, 22:15ean, Gari & Mandalbera zuzenean entzuteko aukera izango da Ermua antzokian (sarreraren prezioa 10 euro). Hainbat urte ibili da Gari bikote moduan, formatu horrek eskaintzen dituen aukerak aztertzen. Horren ondoren Garik proiektu berriari ekin dio, osaketa klasikoa daukan Maldanbera taldearekin: bateria, baxua eta kitarrak osatzen dute laukotea. Taldeari esker Garik bere betiko abestien rok-funtsa berreskuratu ahal izan du.



XXIX. Argazki Rallya domekan SORALUZEN

Kontrargi Argazkilaritza Kolektiboak argazki rallyaren XXIX. edizioa antolatatu du domekarako. Izen-ematea goizeko 8:30etik 9:30era izango da, elkarteak Etxaburueta kalea, 3 helbidean duen egoitzan.



Shanna Waterstownen kontzertua ERMUAN

Abeslari iparramerikarra azken urteetan Europako blues abeslari handienetako bat bihurtu da, eta, batzuk aipatzearen, James Brown, Buddy Guy, Maceo Parker, Matt Bianco, Louisiana Red eta Mud Morganfield bezalako artistekin partekatu du agertokia. 'A real woman' (2011) dugu oraindik bere aurkezpen-txartel nagusia, soul, rhythm & blues, funk eta bestelako soinuak dituen erreperorioarekin. Saioa 20:00etan hasiko da Ermuko Antzokian. Sarrera: 8 euro.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

hildakoak

- Faustina Ibarluzea Loiola. 92 urte. 2017-XI-9.
- Valentin Jauregi Albizuri. 99 urte. 2017-XI-11.
- Felix Cruz Canales. 89 urte. 2017-XI-12.
- Jose M^a Bergara Gallastegi. 82 urte. 2017-XI-13.

jaiotakoak

- Aiur Ruis Barroso. 2017-XI-7.
- Lorea Agirrezabal Agirregomezkorta. 2017-XI-10.
- Etxahun Magunazelaia Telleria. 2017-XI-10.
- Martin Hernando Telleria. 2017-XI-11.

farmaziak

- Barixakua 17
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Zapatua 18
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- Domeka 19
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
- Astelehena 20
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- Martitzena 21
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Eguaztena 22
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Eguena 23
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
- Barixakua 24
EGUNEZ Lafuente (Sostoaarren, 10)

GAUEZ BETI - 2017AN-
Mandiola (S. Agustin, 3)

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udalzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Lurraldebus900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

SUDOKUA

AURREKOAREN EMATZA

3	2	5	7	8	1	9	6	4
6	8	4	9	2	3	5	1	7
9	1	7	6	5	4	2	8	3
4	6	3	8	7	9	1	2	5
1	5	2	3	4	6	8	7	9
8	7	9	2	1	5	4	3	6
5	3	1	4	6	8	7	9	2
7	4	6	1	9	2	3	5	8
2	9	8	5	3	7	6	4	1

	8	5		3				
			9	1			8	
		7	4	2				6
8	6		3			4		
4								1
		1			4		6	8
2				8	9	7		
	9			4	7			
			1			8	9	

Barixakua 17

SOINU-ERAKUSKETA

16:30/10:00. Birziklatutako materialez osatutako soinu-erakusketa interaktiboa, "Konprometitu gaitzen Eibarrekin" sentsibilizazio-kanpainaren barruan. Informazio-gunea. Untzagan.

KARABANA IBILTARIA

17:00. LAB sindikatuaren "Prekariatetaren Aurkako Karabana Ibiltaria": Gune antiprekarioa.

18:00. "Pentsioak eta emakumea: duintasunez bizi ala biziraun" hitzaldia. Untzagan (harmailetan).

MODA DESFILEA

18:00. Jubilatuen, El Corte Inglesak babestuta. Atsedendian Markos Gimenoaren bakarriketa. Untzagako jubilatu etxean.

ANTZERKIA

19:00. "Rapsodas, S.A.", La Red Teatro-ren eskutik. Untzagako jubilatu etxean.

HITZALDIA

19:30. "El bacalao y los vascos", Xabier Alberdiren eskutik. Bakailao astearren barruan. Portalean.

Zapatua 18

IRTEERA

09:00. Sosola Berrira, Gurasoak Berbetan eta Ongi Etorri Berbetanera programako familientzat.

TAILERRA

11:00/13:30. "Konprometitu gaitzen Eibarrekin" sentsibilizazio-kanpainaren barruan, informazio-gunea.

12:00/12:45. Materia organikoa birziklatzeko tailerra, haurrentzat. Urkizun.

BERAKATZ-ZOPA

TXAPELKETA

12:00. Eibarko 2. Berakatz Zopa Txapelketa, Eibarko Sarek antolatuta. Untzagan.

PINTXO-LEHIAKETA

12:30/14:30. "I. Bacalaos Alkorta"-ren finala. La Ruta Slow eta Ondo Jan-ek antolatuta. Bakailao astearren barruan. Udaletxeko patioan.

1950-EAN JAIOTAKOAK

13:00. Untzagan elkartzea: zapiak banatu, talde argazkia eta piskolabisa, Arkupen.

14:30. Bazkaria eta musika. Untzaga Plaza hotelean.

ANTZERKIA

15:30/19:30. "Jon Braun" euskeraz, umeentzat (Anita Maravillas). Coliseoan.

BISITA MUSEORA

17:00. Gidatua, euskeraz.
18:30. Gidatua, gazteleraz. Armagintzaren museoan.

IPUINA ETA MUSIKA

17:30. Umeentzat, Ana Rodriguezen eskutik (Apika). Doan. El Corte Inglesean.

MUSIKA

18:00. Gabonetako argiak piztuko dituztenez, emanaldia Untzagako jubilatu abesbatzaren eskutik. El Corte Inglesean.

SANTA ZEZILIA

00:00. Cielito Musika Bandaren Santa Zezilia kalejira. Untzagatik abiatuta.

Domeka 19

MARTXA

10:00. Marcan Huella elkarteak antolatutako III. Martxa. Usartzatik hasita.

LEHIAKETA

12:00. Eskolarteko bakailao lehiaketa, Eibarko Bakillauaren Kofradixiak antolatuta. Untzagan.

KONTZERTUA

12:30. Cielito Musika Bandarena, Isabel Laspiur pianojoleak lagunduta. Coliseo antzokian.

BIZILAGUNAK

13:00. Bazkarirako elkartuko dira. Untzagan.

KONTZERTUA

19:30. "Sugar Daddy and The Cereal Killers" taldea. Portalean.

Astelehena 20

INFORMAZIO-GUNEA

11:00/13:30. "Konprometitu gaitzen Eibarrekin" sentsibilizazio-kanpainaren barruan. Amañan.

Martitzena 21

XVI. PINTXO LEHIAKETA

Egun osoan, izena eman duten tabernetan. Arrate Kultur Elkartek antolatuta. Laguntzaileak: EMGI, Eibarko Udala eta ostalariak.

IKASTEN

10:00. "RBU (Renta Básica Universal)" hitzaldia, Gorka Moreno EHU-ko Soziologia irakaslearekin. Armeria Eskolan.

IKASTEN

16:00. Punto-tailerra.
17:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

TAILERRA

18:00/20:00. Munduko janariak. Portaleako sukaldean.

HITZALDIA

18:30. "Eibarko hondakinen kudeaketan aldaketak", Arcadio Benitez Mankomunitateko presidentearekin. Portalean.

AUZO-BILERA

19:00. Udal ordezkarien eta herritarren arteko bilera. Ipuruko jubilatu etxean.

DOKUMENTALA

20:30. "Volar". Emanaldia eta solasaldia. Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira antolatutako programaren barruan. Coliseo antzokian.

Eguaztena 22

IKASTEN

09:12. Ibilaldia: Donostiako Itzulia (1.a). Bazkaria eraman. Irteera ordua Ardantzatik (Estaziñotik 09:13an).

XVI. PINTXO LEHIAKETA

Egun osoan, izena eman duten tabernetan. Arrate Kultur Elkartek antolatuta. Laguntzaileak: EMGI, Eibarko Udala eta ostalariak.

INFORMAZIO-GUNEA

11:00/13:30. "Konprometitu gaitzen Eibarrekin" sentsibilizazio-kanpainaren barruan. Amañan.

SANTA ZEZILIA

17:00. Santa Zeziliaren omenezko kalejira, J.B. Gisasola Musika Eskolakoekin.

AUZO-BILERA

19:00. Udal ordezkarien eta herritarren arteko bilera. Urkiko elizan.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

AURKEZPENA

19:00. "Denak Pariserat" ekimena. Emilie Martinekin, bideokonferentzia bidez. Arrate Kultur Elkartearen.

ANTZERKIA

20:00. "En sus zapatos". Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira antolatutako programaren barruan. Udaletxeko patioan.

Eguena 23

XVI. PINTXO LEHIAKETA

Egun osoan, izena eman duten tabernetan. Arrate Kultur Elkartek antolatuta. Laguntzaileak: EMGI, Eibarko Udala eta ostalariak.

IKASTEN

10:00. "Nola sortu ziren zenbakiak" matematikari buruzko hitzaldia, Zientzia Zientifikoetan lizentziatua den Jose Fran Gutierrezen eskutik.

INFORMAZIO-GUNEA

16:30/18:30. "Konprometitu gaitzen Eibarrekin" sentsibilizazio-kanpainaren barruan. Amañan.

KALEETAN KANTUZ

17:00. Dantzak (berriak).
18:00. Dantzak (maila altua).
19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.


SAIO IREKIA

17:00. "Tratu Onaz hitz egin dezagun". Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira antolatutako programaren barruan. Portaleko ikastaro gelan.

ANTZERKIA

20:30. "Muxu", gazteleraz (Tanttaka-Gehitu). Coliseo antzokian.

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, IRUNE, atzo 11 urte bete zenduaz-eta. Musu haundi bat etxekuen eta, batez be, Jokin lehengusuaren partez.



Zorionak, MAIALEN, neska haundi!, aurreko eguaztenian 5 kandela amatau zenittun-eta! Laztan potolo bat etxeko guztien partez!



Zorionak, MARKEL, gure etxeko mutil haundixak 6 urte beteko dittu-eta. Besarkada bat famelixaren eta, batez be, Beñaten partez.



Zorionak, NEREA, hillaren 22xan 8 urte egingo dozuz-eta. Ondo pasa eguna, prexiosa! Patxo haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, AIZEA Barrutia, astelehenian 7 urte bete zenduaz-eta. Etxekuen eta, batez be, Maialen eta Aneren partez.



Zorionak, MIREIA, guapa, domekan urtiak beteko dozuz-eta. Musu haundi bat zure lagun pelukeren partez.



Zorionak, ANGELA, gure printzesak bixar 9 urte beteko dittu-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, NEREA, martitzenian 15 urte beteko dozuzelako. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, BEÑAT, gaur 9 urte betetzen dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, JON eta IRATI, astelehenian (13an) 6 urte bete zenduzelako. Musu haundi bana famelixa guztiaren partez.



Erakusketak

Azaroaren 19ra arte:

- **INDALEZIO OJANGUREN XXX. ARGAZKI LEHIAKETAN SARITUTAKO LANEN ETA BESTE HAINBAR ARGAZKIREN ERAKUSKETA. (Portalea)**
- **ESTHER FERNANDEZ DE MARURIREN MARGO ERAKUSKETA. (Topalekua)**
- **AMAÑAKO JAI BATZORDEARI LAGUNTZEKO KAMISETAK. (Untzagako Jubilatutxoa)**

Azaroaren 30era arte:

- **FOTOSPAI ESKOLAKO KIDEEN ARGAZKI ERAKUSKETA (Angel van Beek, Jesus Herrero, Jasmin Robles, Jessica Sembroni, Aitor Garcia eta Ramon Hernandez). (Portalea jatetxean)**
- **FOTOSPAI ESKOLAKO KIDEEN ERGAZKI ERAKUSKETA (Jordi Gomez, Noe Duran, Claudia Mesa eta Victor Crespo). (El Ambigú tabernan)**


zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

18an: 19,45, 22:30
19an: 20:00
20an: 20:30

"La mejor receta"

Zuzendaria: John Goldsmith



(2 ARETOAN)

18an: 19,45, 20:00
19an: 17:00, 20:00
20an: 20:30

"Feliz día de tu muerte"

Zuzendaria: Christopher Landon



(ANTZOKIAN)

18an: 17:00⁽²⁾, 19,45, 20:00
19an: 17:00^(2 aretoan), 20:00
20an: 20:30

"American Assassin"

Zuzendaria: Michael Cuesta




(ANTZOKIAN)

18an: 17:00^(2 aretoan)
19an: 17:00

"Tu mejor amigo"

Zuzendaria: Lasse Hallström



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Baseria salgai Mallabiako Andino auzoan. Berrizteko. 20.000 m² etxe inguruko lur sailetan. 120.000 euro. Tel. 656-733131.

1.2. Errentan

– Pisua alokairuan hartu nahi dut Eibarren. Tel. 632-411069.
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 3 logelakoa. Tel. 632-426847.
– Nire zortzi urteko umeak eta nik pisua behar dugu alokairuan Eibarren. Tel. 603-783176.

2. Motorra

2.1. Salgai

– Trailerra salgai, lanarekin. Tel. 686-466966.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Garajea salgai Bittor Sarasketa kalean. Tel. 615-761830.

3.2. Errentan

– Garajea alokagai Asua-Errekan. Tel. 616-959625.
– 35 m²ko bulegoa alokagai. 250 eurotan, gastuak aparte (argia, ura, wifi). Ikus-terea etortzeko aukera: Ubitxa, 16-18. Tel. 943-014296.
– Garaje itxia alokagai Asua Errekan. Bi solairukoa, bat biltegitako. Tel. 618-272914.
– Lokala alokagai, barrarekin, 18 urtetik gorakoentzat. Tel. 600-890245.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. Interna. Tel. 637-387401.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. Interna. Tel. 686-824793.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, kamarera moduan eta garbiketarako egiteko. Tel. 688-627687.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 632-411069.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-247899.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-059098.
– Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-551711.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 667-301325.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-893569.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 662-012834.
– Emakume euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 617-628137.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 635-944376.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 678-185304.
– Gizona eskaintzen da edozein lanetarako: sukaldari-laguntzaile, iturgin, txakurrak pasiatu... Tel. 632-067287.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko 13:30etik 17:30era. Tel. 634-256471.
– Mutila eskaintzen da sukalde-laguntzaile moduan. Esperientziarekin. Tel. 632-305145.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-061103.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 658-273486.
– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko asteburuetan. Tel. 617-571210.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-436462.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauz ere. Tel. 608-886701.
– Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta titulazioarekin. Orduka eta gauz. Tel. 650-513412.
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 679-910991.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko gauz. Tel. 657-479770.
– Emakume arduratsua eskaintzen da goizetan umeak zaindu eta eskolara eramateko. Tel. 688-884149.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientziarekin. Tel. 680-973549.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 602-043190.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko lokal, taberna edo pegoetan. Tel. 632-426847.
– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko, supermerkatuan lan egiteko... Tel. 644-886835.
– Mutila eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko. Esperientziarekin. Tel. 631-018078.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 632-140115.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 632-206394.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientziarekin. Tel. 664-357381.
– Emakumea eskaintzen da garbiketara lanak egiteko: bulegoak, pisuak... Tel. 629-872270.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 688-718853.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 688-738823.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-395471.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka eta asteburuetan. Tel. 633-101852.

4.2. Langile bila

– Neska euskalduna behar da umea zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Jornada osoa. Tel. 605-693147.
– Sukalde-laguntzailea behar da Portalea jatetxerako. Esperientziarekin. Tel. 943-206868.
– Kamarea/o behar da Soraluzeko taberna baterako. Tel. 943-750030.
– Neska euskalduna behar da astelehene-tik ostegunera arratsaldez eta ostiraletan goizez. Tel. 653-701630.
– Kamareroa behar da Eibarren. Esperientziarekin barran eta jangelan. Tel. 669-713033. Bidali curriculum: jaciebelm@gmail.com
– Dendariak behar dira janari-denda batean lan egiteko. Jornada erdiz. Bidali curriculum Eibarko 16 postakutxara.
– Eibarko Laukolan SL enpresak proiektuak garatzeko programatzailea behar du. .NET eta .SQL jakitea ezinbestekoa. Bidali curriculum: lkl@laukolan.com
– Estetizista behar da Eibarren. Tel. 657-793584

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

– Neska euskalduna behar da klase partikularrik emateko DBH 1. mailako ikasleari eta Batxilergo 2. mailakoari. Tel. 617-386198.

5.2. Eskaintzak

– Neska euskalduna eskaintzen da LHko edo behar bereziak dituzten umei klase partikularrik emateko. Tel. 699-693821.
– Euskerazko klaseak ematen ditut: azterketetarako prestaketa (EGA, perfilak, ...) eta klase partikularrik. Tel. 620-608065.
– Klase partikularrik ematen ditut. DBH, Batxilergo eta Heziketa Zikloak. Talde txikiak. Tel. 685-739709.
– DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Kanape tolesgarria salgai, Sompura markakoa. 0'90x1'90. Berria. Tel. 688-655758.
– 4 berogailu elektriko salgai (bi 7 elementukoak, bat 13koa eta programagarri eta bestea 4koa). Tel. 626-144098.
– Emeibaby motxila ergonomiko bi salgai. Jaiotzetik 15 kilora arte. Egoera onean. Frogatzeko aukera. Tel. 657-774565. Haizea.
– Binilozko diskoak eta singleak erosten ditut. Tel. 688-624326.

6.1. Salgai

– Pailazoan saioetan Unibertsitatean aurkitutakoak: Hitman antzeko kopin bi, tren txikia, txupetea, artilezko buf bi (zuria eta arrosa), fular bi (beltza eta loreduna) eta aterkina (karratadun marroia). Jasotzeko: ... eta kitto!

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdut/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus

Zero Kilometroaren Hilabetea Hyundai Oarso Car-en



Tucson GDI 131 cv
16.900 €

i20 Fresh MPI 85 cv
8.900 €



i30 Klass TGDI 120 cv
13.500 €

OARSO CAR

HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPUZKOARAKO
WWW.OARSOCAR.COM

ELGOIBAR

Olaso Polig., 17

943 74 14 80

OIARTZUN

Lintzirin Poligonoa, 1
943 49 48 30

BEASAIN

Errepide Nazionala, 1
943 80 40 54

IRUN

Juan Thalamos, 43
943 63 97 69

HYUNDAI



Hyundai Gama i30 5 ate: CO₂ emisioak (g/Km): 94-169. Kontsumo mistoa (l/100 Km): 3,6-7,3.
Hyundai Tucson Gama: CO₂ emisioak (g/Km): 119-175. Kontsumo mistoa (l/100 Km): 4,6-7,5.
Kopuru mugatua, stock-a amaitu arteko eskaintza. Finantziarioari lotuta. Baldintzak galdetu: oarsocar.com





EIBAR

HORTZ KLINIKA CLÍNICA DENTAL

- ◆ KALITATEA PREZIORIK ONENEAN, TRATAMENDU GUZTIETAN
- ◆ ARRETA PERTSONALIZATUA, HURBILA ETA PROFESIONALA
- ◆ HAGINLARI KOLEGIATUAK, 10 URTE BAINO GEHIAGOKO ESPERIENTZIAREKIN
- ◆ ODONTOPIEDIATRIA ZERBITZUA, HAURDUNALDITIK | KLINIKAN KONTSULTATU



R.P.S. 259/15
MAITANE G. INIGUEZ
ODONTOLOGIAN LIZENTZIATUA

ZERBITZU GUZTIAK KLINIKAN BERTAN

- ◆ ODONTOLOGIA OROKORRA
- ◆ HAUR-ODONTOLOGIA
- ◆ HORTZ ZURITZEA ETA ESTETIKA

- ◆ ORTODONTZIA
- ◆ PROTESI FIJOA ETA KENTZEKOA
- ◆ ZIRUGIA ETA INPLANTEAK

SAN AGUSTIN KALEA, 4 BEHEA EZKERRA, 20600 EIBAR

TELEFONOA 943 537 076
www.eibarclinicadental.com

MUGIKORRA 688 884 808
info@eibarclinicadental.com